



**"Zuhaitzen %5 zahartzen utziz gero aukera asko emango genizkioke inerexaguei"**

JUAN TOMAS ALCALDE BILOGOA / 5

## Dorrao lantegia saltzeko zain

Kontzejuak baso aprobetxamendua saldu ondoren zein inbertsio egin erabakiko du / 9

**Irurtzango Udalak aurrekontuetan herritarrak babestea izan du buruan / 7**

**Arakildarren ibarrari buruzko iritzia emateko inkesta zabaldu du udalak / 9**

**Mikel Regilek zilarrezko domina lortu zuen kadeteen Espainiako Ziklo-kros txapelketan / 18-19**

**Ekain Alegre eta Idoia Granizo bertsolariak Izeta Sariketan oholtzara itzuli ziren / 22**



**Binakako Harri Jasotze txapela jantzi du Jon Irañetak Urdax Magunazelaiarekin / 17**



Juan Tomas Alcalde biologoa, eskubian, Oinez Basoan, saguzarrentzat jarritako babeslekuarekin. ARTXIBOA

# "Haien irudi txarra zinematik prentsara pasa da orain"

**JUAN TOMAS ALCALDE** BIOLOGOA

Gure basoetan egiten dugun kudeaketa kaltegarria da inereaguendako, ez baitugu hildako zuhaitzik zutik uzten, eta horiek izaten dira haien babesleku naturalak

**Jon Arakama Goikoetxea** ALTSASU Juan Tomas Alcalde inereaguentan espezializatutako biologoa da. Zehazki, xaguzaharren kontserbazioan aritu da hogeita hamar urtez. Sakanatik pasa zen duela urte eta erdi eta, Iñigo Aritzaren Oinez Basoaren harira, Usolarrainen inereaguentzako babeslekuak jartzeko proiektuan lan egin zuen. Gaur solasaldi bat izan dugu harekin, gauz bizi diren animalia hauetaz zer edo zer ikas dezagun.

**Zer egin zenuten Usolarrainen?** Inereaguendako babeslekuak, kaxa modukoak, jartzea zen proiektuaren helburua, animalia horiek basoan finkatzen laguntzeko. Sakana inguruko basoak interesgarriak dira urriagoak diren espezie batzuekiko, eta proiektuaren helburua zen babesleku aukera gehiago ematea, inereaguiek ez baitute beraiek babeslekurik edo habiarik egiten;

aurkitzen dituzten zuloak aprobetxatzen dituzte.

**Zergatik behar dute laguntza?**

Inereaguiek bi gauza behar dituzte: babeslekua eta elikadura. Elikadura toki gehienetan izaten dute. Sakana bezalako eskualde batean, nahiko ongi mantenduta dagoena, bizitzeko aukera onak izango dituzte intsektu ugari bizi direlako. Baina elikaduraz aparte babesleku egokiak behar dituzte. Horri dagokionez, hiru mota dauzkagu: pitzaduretan bizi direnak (batzuetan eraikinetara moldatu direnak), kobazuloetan bizi direnak, eta zuhaitzen barruan edo zuloetan bizi direnak. Azken talde horrendako jarri genituen kaxak. Zuhaitzetan dauden zuloak gure basoen kudeaketaren arabera dira. Toki batzuetan inereagu horiek ez daukate babeslekurik guk zuhaitzak zahartu aurretik moztu ditugulako; ez ditugu hildako zuhaitzak zutik uzten, eta



**EGOKI**  
VENTANAS PVC LEIHOAK  
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA  
egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea



Gau saguzar ertaina (*Nyctalus noctula*). UTZITAKOIA

horiek dira babesleku gehien eskaintzen dituztenak. Beraz, gure basoen kudeaketagatik falta diren babesleku naturalak konpentsatzeko jarri genituen kaxa horiek; saguzarrek bizitokia izatea errazteko.

#### Izan al da emaitzarik?

Duela urte eta erdi jarri genituen kaxak eta pasa den udazkenean egin genuen berrikuspen bat. Hogei kaxa berrikusi genituen eta horietan saguzarrak, edo arrastoak, seietan aurkitu genituen, eta horietatik hiru okupaturik zeuden. Oraindik denbora gehiago eman behar zaie, baina ongi. Hasi dira iristen.

#### Zehazki espezie baten bila ari zireneten, ezta?

Sakanan jarri ditugu kaxa horiek ea Bechstein saguzarra (ratoneo forestal) sartzen den. Oso urria da. Nafarroan hiru kolonia ezagutu dira, hogeita eta hogeita hamar kideko taldeak; hau da, oso-oso gutxi. Aipatu behar da saguzarra babestutako animalia dela. Nafarroan oraintxe bertan hogeita zazpi espezie daude, eta horietatik sei daude desagertzeko zorian. **Eta sartu al da bechsteinik?**

Oraindik ez. Oso urria da, beraz, kaxetaraino iristea, aurkitzea eta bertan bizitzen jartzea oso zaila da. Hogeia kaxa dira... Ez dira asko. Oraingoiz Etxarri Aranzoko basoan aurkitu dira, baina ez Altsasun. Ikusiko dugu ea iristen diren.

Beste alde batetik, esan behar da kaxak aukera onak direla

babesleku natural gutxi dauden lekuetarako, baina onena babesleku naturalak izatea izango litzateke. Kaxek ez dituzte zuhaitzetako babesleku naturalak ordezkatzeko. Kaxak neguan hibernatzeko txarrak dira, bakarrik udarako eta udazkenerako balio dute. Negua pasatzeko zuhaitzetan egon behar dute, beraz, kaxekin bakarrik ezin ditugu saguzar horiek mantendu. Basoen kudeaketa ere kontuan hartu beharko litzateke.

**Baina, beharrezkoa da? Beharrezkoak dira saguzarrak ekosisteman?** Saguzarrek garrantzi handia dute ekosisteman. Gure latitudean, hemen, ia saguzar guztiak dira intsektiboroak, normalean gaueko intsektuak ehizatzen dituzte, eta intsektu horiek ez dauzkate etsai asko gauez. Hau da, naturak gaueko intsektuak kontrolatzeko duen bidea, gure lurretan, saguzarrak dira.

### "PIRAMIDEAREN GOIALDEAN DAUDE, INOR EZ DELAKO SAGUZARREZ ELIKATZEN"

### "NAFARROAN HOGEITA ZAZPI ESPEZIE DAUDE, ETA HORIETATIK SEI DAUDE DESAGERTZEKO ZORIAN"

Gauez hegazti gutxi egoten dira aktibo, eta gainerako predaizaleek eragin gutxiago dute. Pentsa, gainera, saguzarrek metabolismo oso azkarra daukatela. Minutuko zortziehun taupada ematera iritsi daitezke hegan egiten dutenean. Horregatik egunean gutxi gorabehera beraien pisu erdia jan behar dute. Hori, urtean, milaka intsektu dira; milioiak, kasu batzuetan.

Intsektu horien kontrola guretzat onuragarria da. Badira guri eraginik egiten ez dizkiguten intsektuak, baina beste batzuek plagak sortu ditzakete edo gizakiei gaixotasunak transmititu. **Nola izan behar da basoaren kudeaketa saguzarrak babesteko?** Araudiren bat badago. Toki batzuetan betetzen da eta beste batzuetan ez. Basora bazoaz oso zaila da zuloak dituen edo hilda dagoen zuhaitz bat zutik topatzea. Lehenago moztu ditugu. Onena izango litzateke portzentaje txiki bat uztea. Adibidez, zuhaitzen ehuneko bostari zahartzen eta zutik hiltzen utzi ezker, eta hor zutik inork ikutuko ez balitu, beren kabuz egoten, erori arte, horrek aukera asko emango lizkieke saguzarrei.

Kontua da ezin garela, ezta ere, fundamentalistak izan eta esan ezin dela basoa ikutu. Ez, denok nahi ditugu altzariak, papera, eta egurra erabili. Baina komenigarria litzateke zuhaitzen ehuneko txiki bat

ikutu gabe uztea beren bizitza zikloa bete dezaten, gu tartean izan gabe.

#### SAGUZARREN EKOLOGIA

Gauez mugitzen direnez ia ezkutuan bizi dira, baina adi dagoenak ikusiko ditu animalia hauek gure inguruan. Sakanan hainbat izen hartzen dituzte: inorexaguak, gauineriak, saguzarrak... Eta oso ohikoa da animalia bitxi hauek jendearen jakinmina piztea.

#### Zergatik jartzen dira buruz behera?

Oinetan azazkalak dauzkate eta diseinaturik daude esfortzurik egin gabe zintzilkatzeko. Azazkalak kako antzeko zerbait dira, hortik zintzilikatu eta ez dute indarririk egin behar mantentzeko. Azazkalaren eta hezurren arteko ligamentua da gorputz osoaren pisua eusten duena.

Eta buruz behera lo egitean toki altuetan geratzen dira, predaizaleengandik urrun. Sabaian lo egitea lurrean egotea baino seguruagoa da, lurrean lepazuriek eta katuek harrapatzeko arriskua daukatelako.

#### Nolako da saguzarren bizitza soziala?

Oraín, neguan, hibernatu egiten dute, talde txiki edo handietan babeslekuaren arabera. Txoko ezkutuetan elkartzen dira, tenperatura asko jaitsiko ez den tokietan, eta elkarrekin berotzen dira.

Udaberria iristean itzartzen dira eta, goseturik daudenez, jaten hasten dira. Emeek kumeak hazteko koloniak sortzen dituzte. Hamarretik hirurehun arteko taldeak sortu ditzakete, kobazuloetan, eraikinetan edo zuhaitzetan, eta bata bestearekin berotzen dira enbrioien garapenean arazorik ez gertatzeko. Bien bitartean arrak bakarrik bizi dira, haien kabuz. Ez dituzte kumeak zaintzen.

Garagarrean erditzen dituzte kumeak; bana, eme bakoitzeko, eta garragarrietik garilera bitartean emeek bularra ematen diete, eta ehizatzen eta hegan egiten erakusten diete. Uda bukaeran araldia hasten da, eta berriro elkartzen dira arrak eta emeak. Arrak haremak egiten saiatzen dira eta agorrietik hasita lastailara arte emeak estaltzen aritzen dira. Azaroan berriro hibernatzera doaz.

HURRENGO ORRIAN JARRAITZEN DU >

## Bazkide bazara

*jarraitu irakurketaz gozatzen*

# Oraindik ez al zara bazkide?

joan erdiko orrialdeetara

12-13 orr.



guaixe  
fundazioa

**Luze bizi dira?**

Espeziearen arabera, baina orokorrean urte asko bizi dira saguzarrak. Gutxien bizi diren espezieak hiru eta lau urte inguru bizi dira, eta gehien bizi direnak hogeita hamar eta hogeita hamabost urte inguru bizi daitezke. Batez besteko bat izan daiteke bost-hamar urte bitarteko zerbait. Hori asko da horrelako animalia txiki batendako, berrogeita hamar gramotik beherako animalia batendako.

Baina gutxinaka ugaltzen direnez, urtean kume bakarra eme bakoitzeko, urte asko bizi behar dute ondorengotza bermatzeko.

**Zergatik kume bakarra?**

Seguruenik kume gehiago edukitzeko energia lortzeko gai ez direlako, eta estrategia hau ongi etorri zaielako orain arte. Saguzarrak pixka bat muga-mugan bizi dira. Hiperaktiboak dira, energia asko gastatzen dute bizitzeko eta aparteko edozein esfortzuz, haurdunaldiak edo bularra emateak, adibidez, bizitzaren mugaraino eramango lituzke. Eta beraien bizitza zikloa horretara ohitu da, obulu bakarra obulatzera eta kume bakarra erditzera. Horrela ongi doakie.

Egia da, gisa berean, ez daukatela etsai naturalik eta, beraz, ez daukatela beste batek ehizatzea konpentsatzeko azkar ugaltzeko behar hori.

**Arraroa al da etsaierik ez edukitzea?**

Bai, espezie gehienek dauzkate etsaiak, eskala trofikoan goian daudenek izan ezik; horiek ez dute izaten. Pentsa, harrapariak, otsoak edo hartzak. Eta saguzarrak ere, beste maila batean, piramidearen goialdean daude, intsektuez elikatzen direlako eta inor ez delako saguzarrez elikatzen. Batez ere abilezia izan dutelako gauez bizitzeko. Hor zaila da haiek harrapatzeko.

**Gauez ibiltzeko daukaten gakoe-tako bat radar sistema da.**

Bai, sonar bat da, horrek esan nahi du soinuarekin funtzionatzen duela. Saguzarrek garrasi egiten dute eta ultrasoinuak emititzen dituzte (guk entzun dezakeguna baino tonu altuagoko soinuak). Garrasi horiek alde guztietara emititzen dituzte eta belarri handiekin, oso handiak dira gorputzarekin alderatuta, oihartzunik dagoen edo ez jasotzen dute, eta horrela badakite inguruan oztoporik dagoen edo ez. Nondik datorren oihartzuna kontuan harturik, ba, badakite non dagoen



Saguzarrak babeslekuan gordeta. UTZITAKOIA

oztopoa; eta noiz iristen den oihartzuna, ba, badakite zein distantziatara dagoen oztopoa. Noski, hori egiteko ez dute argirik behar. Egunez ere hegan egin dezakete, baina gauez eraginkorragoa egiten zaie inork ezin dituelako ehizatu.

Esan behar da saguzarrak ez direlaitsuak. Gauza da ikusmena ez dutela oso garatuta. Seguruenik txuri-beltzean ikusten dute eta ez dute gure bereizmena.

**Batuetan pasa izan zaizkit oso gertutik ziztu bizian. Bazirudien talka egingo zutela. Horrela hegan egiteko eta maniobratzeko, sonar horrek zehatza izan behar du.**

Bai, zehatza da oso intsektu txikiak aditzeko gai delako. Baina

**"EMEEK KUMEAK HAZTEKO KOLONIAK SORTZEN DITUZTE, HIRUREHUN ARTERAKO TALDEAK SORTUZ"**

egia da oso irismen gutxikoa dela, ezin dute berrogeita hamar bat metrora dagoena ikusi. Gurretako laino handia dagoenean ikustea bezalaxe da.

Maniobratzeko gaitasuna beste honengatik da. Saguzararren jatorrizko izena chiroptera (quiróptero) da, grezieratik: χείρ, txeir, «esku», eta πτερόν, pteron, «hegal». Izen hori saguzar baino zehatzagoa da. Saguzarrek hegala eskuarekin osatzen dute, hau da, eskuko hezurak, metakarpak, oso luzeak dituzte, behatzak ere oso luzeak dituzte, eta horrekin osatzen dute ia hego guztia. Hegaztiekin, aldiz, soilik behatz batekin eta besoarekin egiten dute. Pentsa, saguzarrek besoarekin eta eskuko behatz guztiekin. Ia hegal guztia eskua da. Eta gurekin gertatzen den antzera, eskuetan besoan baino askoz ere mugikortasun handiagoa daukate, eta horrela sekulako abilezia daukate maniobratzeko eta norabidea zehaztasunez kontrolatzeko.

**BANPIROAK, KORONABIRUSA ETA BESTE**

Gauineriei buruz zenbat eta gehiago hitz egin, orduan eta animalia bitxiagoak eta erakar-garriagoak iruditzen ari zaizkit. Hala ere, solasaldi bat ez da nahikoa izango aurretik zineman eta telebistan sartu diguten irudia aldarazteko. Saguzarrak, banpiroak eta koronabirusa.

**Nerabe talde bat txango batean basoan galtzen da. Kobazulo batera sartzen dira gaua pasatzeko eta, bat-batean, saguzar mordera ateratzen da hegaka. Arriskurik?**

Ez dute erasotzen. Gehien pisatzen duenak berrogeita hamar gramo pisatzen ditu. Pentsa. Ez gaituz-

**"SAGUZARRAK BATEZ ERE ONURAGARRIAK DIRA. GIZA BIZI ASKO SALBATZEN DITUZTE"**

te erasotzen galtzekoak dituztelako. Egia da batzuetan badirudiela oso gertu hegan egin dezaketela eta... legenda ugari dago saguzarren inguruan, baina European ez dago gizakiak erasotzen dituen saguzarrik.

Errabiaren tankerako gaitzak izan ditzakete. Baina hori gizaki bati kutsatzea zaila da. Lehenik, saguzar bati heldu behar dio norbaitek; gero, saguzarrak ihes egiteko hozka egin behar dio; eta, azkenik, saguzar horrek errabia izan behar du, eta hori oso zaila da. Milatik batek baino gutxiagok daukate errabia. Normalena da ezer ez gertatzea. Oso hozka txikitxoak dira. Niri neuri askok egin didate kosk.

**Eta banpiroak...**

Hego Amerikan eta Erdialdeko Amerikan odolez elikatzen den saguzar bat bizi da, banpiro deitzen diotena. Ugaztunen odola xurgatzen du eta gizakiari kosk egin diezaiokete, gainerako animaliei bezala. Zauria txikia da eta odol gutxi hartzen du, baina errabia pasa dezake.

Baina hori bakarrik han gertatzen da. Mila eta lauhun espezieetan bakarra. Saguzarrak batez ere onuragarriak dira. Pentsa malaria bezalako gaixotasunak kontrolatuago daudela saguzarrek malaria transmititzen duten gau intsektuak jaten dituztelako. Giza bizi asko salbatzen dituzte.

**Azkena: Koronabirusarena.**

Ea, hauxe da dakiguna. Badira Txina inguruan gure koronabirusaren antzekoa den birus bat garraiatzen duten saguzarrak. Birus horren eta gure koronabirusaren material genetikoak aztertu dituzte eta ikusi da bi birusek arbaso amankomun bat zutela. Duela berrogeita hamar bat urte arbaso hori zuten, eta gero bi birus ezberdinetan banatu zela, gurea eta saguzarrena. Horregatik espekulatu da agian saguzar batek pasa digula koronabirusa, baina kontua da ez dela orain arte topatu saguzar bakar baten baitan gure koronabirusa. Egia da antzekotasun asko daudela saguzarren birusaren eta gurearen artean. Aurkitu da, baita ere, gure birusak antzekotasunak dituela bertako beste animalia batzuen birus batzuekin. Pangolina hor dago.

Ez dago zientzialari seriorik birusaren jatorria naturala dela dudan jartzen duenik. Animalia bat izan daiteke jatorria baina ez dakigu zein, oraindik ez baita aurkitu zehazki gure birusa animalia basati baten baitan.



ASTEKOA

AITZIBER GRADOS

## Temperaturen norgehiagoka

2021ak garagardoa eutsi dio 2020ari... Bai, zu ere konturatu zara. Urtea lurrera begira hasi dugu, eta ez elurak kaleak zuriz jantzi dituelako, aurreko urteak eman digun kokotekoarekin zaila egiten ari baitzaigu burua altxatzea. Urte zaharraren ajeaz aritu behar nintzen... baina mozkorraldiaren koma etilikoan gabiltza oraindik.

Bestela ere, nola joan zaizkizue "ez-gabonak"? Onak ez dakit, baina gauak hotzak izan dira. Zero azpiko temperaturak eta izoztuta utzi gaituzten beste hainbat kontu. Urtean hiru izan dira erauldako zuhaitzak eta gutxi ez balitz Iortia txakurren gudu zelaian tirolina eraiki dute, ez txakurrentzako, edo bai, ez dakit. Egoera p\*nd\*mikoak bestalde eraztun forma dauka eta polizia ezkondu behar dela dirudi; Altsasuko Gaztetxea ez dute gonbidatu, gunea segurua dela ziurtatzeko edo. 2021eko kintoak gurasoen ziurtagiriak biltzen hasiak dira San Juan suetan erretzeko; Memetxorroak Altsasuko Instagram "meme" kontuaren urteurrena izan da; sagardotegietako zerrendetan hutsuneak, asteburuko zeregin zerrendetan ez hainbeste;

## KONTRAESANEN ETA IRTENBIDERIK GABEKO EGOERETAN LEPOKO MINA BARETZKO ARMA: IRUDIMENA DUGU

Edo hirugarren olatuaren uestezko erruduna denari, Olentzerori, nola jasan behar izan zituen plantoia, etxeko atarietan hoztaren hotze. Mendekua hartu du.

Guk bitartean mendekuen, kontraesanen eta irtenbiderik gabeko egoeretan lepoko mina baretzeko arma: irudimena dugu. Batzuetan izozten bazaigu ere, ezin digute lapurtu. Eta nik, bi mila eta hogeiarri garagardoa laster hoztuko zaiola pentsatu nahi dut.

**GUTUNAK:** Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

## HARA ZER DIEN

### Aurrekontuak eta larrialdi klimatikoa

#### SAKANA TRENAREN ALDE

Aurrekontuak edozein gobernu bere jardura egin dezan ezinbesteko tresna dira eta horiek gabe ez dago politika instituzionalik egiterik. Aurrekontuen garrantzia, beraz, eztabaida ezina da eta horregatik herri mugimendutik alderdiei eskaerak egitera goazenean erantzun beretsuak jasotzen ditugu beti: "zuen eskaerak oso kontuan hartzekoak dira baina hauek eskakizun sektorialak dira, gutxiengo batek babesten dituenak, zuenak baino lehenetasun handiagoak daude, gehiengoaren intereseko gaiak lehenetsi behar ditugu, gai horiek aurrekontuetan

txertatzeko nahikoa indarririk ez daukagu, kalean indar gutxi daukazu..."

Tira, *realpolitik*-a da hau eta ez gara kexatzen ari. Euskal Herrian herri mugimenduak hainbat alderdi eta sindikaturekin harreman onak dauzka eta gauza askotan elkarlana dago.

Kontua da, gure eskaerak atzera botatzeko urteetan argudiatu dizkiguten arrazoiak, arestian esan ditugunak, hori guztia, pikutara doa gaur egun bizi dugun larrialdi klimatikoaren harira.

Eskuin muturrak salbu, beste sektore ideologiko guztiek bat egiten dute gaur egun bizi dugun egoera oso

larria dela esateko. Izatez, munduko gobernu, erakunde eta zientzia elkarre gehienek onartzen dute larrialdi klimatikoa eta ados daude neurri zorrotzak hartu behar direla. Horregatik 2015ean Pariseko Protokoloa onartu zen, baina hori bete beharrean berotze efektua gora doa eta Estatuko gobernu koalizioak, inoizko aurrerakioenak, emergentzia globalari bizkarra eman dio eta bere zilborrera begira, sektorialki (Espainiar Estatu) jokatu du, gehiengoaren (munduko biztanleen) interesen aurka eta lobby zehatz batzuen interesak babestuz.

Larrialdi egoera honetan Abiadura Handiko Trenari 5.000 milioi euro emateak eta bestelako azpiegiturak bultzatzen jarraitzeak berotze globala handitzen du gizateria amildegira bultzatuz.

## GUTUNA

### Alkatearen bandoari ñabardura

#### JOSEBA BARRIOLA

2021eko urtarrilaren leian bando bat eskegi zen herriko kaleetan. Altsasuko alkatearen agurra zen 2021rako "bihotzez osasuna" opatuz herrikide guztiei. Ilusioa eta animoa piztu nahia eskertzekoa da.

Baina ñabardura bat egin nahi diot. Santa Ageda eta inauteriak eta bestelako jaiak gogoan hartuz, esaten digu: "... ezin genuen imajinatu Txinako eskualde bati eragiten zion "Koronabirus" hark bete betean gure artean joko zuenik. Kolpe bat gure eredu sozial eta

ekonomikoari". Ez al da agian alderantziz? Ez al da gure eredu sozial eta ekonomiko "koronabirusa" ekarri diguna? Gure eredu sozial eta ekonomikoak ekartzen ditu murrizketak, baita osasun arloan ere; ekartzen digu aldaketa klimatiko ikaragarria; ekartzen digu deforestazioa eta ekosistemen suntsipena; ekartzen dizkigu desberdintasun sozial obszenoak... Gure eredu sozial eta ekonomiko da COVID19aren pandemia ekarri diguna.

Jarraitzen du: "kostatu egingo zaigu indarberritzea, baina ahalegin kolektiboarekin eta, zientziaren bidez lortuko

dugu". Ados nago honekin, baina garbi esan beharra dago: zer indarberritu behar da? "gure orain arteko eredu sozial eta ekonomiko?" Zeren eredu sozial eta ekonomiko hau berriro indartzen bada, berriro etorriko dira eta larriagoak izango dira pandemia berriak, suntsipen berriak, aldaketa klimatiko katastrofikoagoak, miseria eta pobrezia handiagoak, indarkeria matxista areagotua.... AEBko Kapitolioan ikusi duguna larria da, baina hori ere eredu ekonomiko sozial barbaro baten ondorioa da, eta oraingo honetan basakeria hori kolpatu du demokraziaren bihotza omen den AEBko Kapitolioan. Barbaroak etxean daude.

# guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

[www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

#### Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde fundazioa@guaixe.eus

#### GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika info@gkomunikazioa.eus Ainhoa Etxeberria Pikabea gk@gkomunikazioa.eus

#### Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez admin@guaixe.eus

#### Zuzentzailea:

Patxi Flores Lazkoz

#### Kolaboratzailea:

Jon Arakama Gokoetxea

#### Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

#### Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa guaixe@guaixe.eus

#### Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano publi@guaixe.eus

#### ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu 948 564 275 948 562 107 (Faxa) 618 882 675

#### Maketatzailea:

Irene Trece Obeso maketazioa@guaixe.eus

LAGUNTZAILEAK

# Mank

s a k a n a

**BAZKIDEAK****Nafarroako Gobernua**  
Gobierno de Navarra

# 'Euskaraz solas eta jolas' hiru ikastetxetan

Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak antolatutako euskarazko mintzapraktika tailerrak Zelandi eta Domingo Bados ikastetxe publikoetan eta Iñigo Aritza ikastolan izanen dira

ALTSASU / OLATZAGUTIA

Hezkuntza Departamentuak antolatu dituen tailer horien helburua da "D eta A ereduak ikasleen ahozko euskara hobetzea. Horretarako, jolas giroko jarduera eta talde dinamikak erabiltzen dira". Mikel Albisu koordinatzaileak gaineratu duenez, "astebetez, ikastalde bakoitzak hezitzaile baten bisita jasozten du. Horri esker, ikastaldeak erdibitu egiten dira; horrela, tutorea ikasleen erdiarekin gelditzen da, eta hezitzaileak beste talde erdia hartzen du. Ikasle kopurua erdira jaistean, euskaraz mintzatzeko aukera gehiago dute ikasleek, jakina baita talde kopurutsuetan zailagoa dela ahozkotasuna lantzea".

Albisu Beintzako Orbela aterpeteko arduraduna da eta han eta Arantzan egin izan dira Euskaraz bizitzeko egonaldiak aurreko ikasturteetan. Baina COVID-19 gaitzak eragindako pandemiak halako egonaldiak egitea ezinezko bihurtu du eta "Solas eta jolas" tailerrek ordezkatu dute. Marian Antoñana departamentuko Euskara atalburuak azaldu duenez: "Argi zegoen pandemia egoeran ezin genituela euskarazko egonaldiak egin aterpetxeetan, baina aldi berean oso argi genuen ahozko euskara in-



Programan parte hartu duten ikasle batzuk jolasten. UTZITAKOIA

dartu behar genuela ikastetxeetan. D eta A ereduak ikasle gehienendako, eskola da euskara ikasteko eta erabiltzeko gune nagusia eta, batzuetan, ia bakarra. Udaberriaz geroztik aurrez aurreko eskolarik gabe zeudenez, euskaraz hitz egiteko askoz ere aukera gutxiago izan zuten ikasleek".

Eskaintza egin eta ikastetxeen aldetik jasotako erantzunak antolatzaileen aurreikuspenak gainditu zituen. Baina, antolatzaileek ezin izan dituzte eskara guztiak onartu. Udazkenean tailerren lehenbiziko txanda egin

zen eta 1.024 ikasleek parte hartu zuten. Astelehenetik martxo akabera bitartean 2.118 ikasleren txanda izanen da.

Horien artean Sakanako hiru ikastetxetako ikasleak daude. Altsasuko Zelandi eskola publikoko D ereduak 6A eta 6B gelak eta A ereduak 6. maila eta Olatzagutiko Domingo Bados eskola publikoko 4-5 taldea tailerren heldu den astean parte hartuko dute. Iñigo Aritza ikastolako bi taldek berriz martxoaren 22tik 26ra izanen dute mintzapraktika tailerra.



Banatuak egutegian hilabeteko irudiarekin batera aholku bana ageri da.

## Zaintza onak urte guztiko kontua direlako

Gizarte Zerbitzuek emozio osasungarrien onuren berri eman diete seme-alabak dituzten familiei

SAKANAKO

Sakanako familien barruan zaintza onak sustatzeko asmoz, eskola adinean seme-alabak dituzten familiek egutegi bat jaso dute. Egutegiak hilero irudi eta esaldi bana du. Josune Zabala Ijurkok azaldu duenez, "familian osasun emozionala garatzeko mesedegarriak diren alderdiak transmititu nahi ditugu. Egutegia gurasoendako lagungarria eta familiaren harremanetan onuragarri izatea nahi izan dugu. Irakurri, hausnartu eta praktikan jartzera gonbidatu ditugu".

Zabala Irurtzun eskualdeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko Prebentzio eta familia Programako hezitzailea da. Kanpaina Etxarri Aranatz eta Altsasu eskualdeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko Prebentzio eta familia Programekin batera egin dute. Hiruen artean eskola adinean seme-alabak dituzten Sakanako

1.200 familiei banatu dizkiete egutegiak.

Irurtzun, Etxarri Aranatz eta Altsasuko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko Prebentzio eta familia Programako hezitzaileek, prebentzio programaren bidez, urteak daramatzate familiekin lanean, seme-alaben heziketaren inguruan. Osasuna eta buru osasuna landu dituzte, esaterako droga kontsumoaren edo sare sozialen erabileraren inguruan aritu dira maiz. Zabalak esan duenez, "zaintza onak umeen heziketan duten garrantzia" azpimarratu dute beti, "baita familiendako hain garrantzitsua den emozio osasuna landuz". COVID-19 gaitzaren agerraldiarekin "gurasoek heziketaz aparte ongi egoteko beharra nabarmendu dute. Baina kezkek segitzen du, esaterako, pandemiarekin sare sozialak gehiago erabiltzen direlako".



**BUELTAN gara!**

## Egun on Sakana

- 08:30 Euskalerrria irratiko magazina
- 10:00 Prentsa eta eguraldia
- 10:15 Bateti bestia
- 10:20 Albisteak eta kirolak
- 10:30 Hizketan
- 11:05 Solasaldia
- Aralar eta Karrape irratikoekin
- 11:55 Agurra



**beleixe** 107.3 FM

**ZUZENEAN**

ERREPIKAPENAK 14:00ETAN

**ONLINE**

**GUAIXE.EUS**

948 567 074

irratia@beleixe.eus



Irurtzundarrak pandemia egoeran babestea izan du buruan udalak aurrekontuak egiterakoan. ARTXIBOA

# Gizarte izaerako aurrekontuak

Larrialdi egoerarako, 0-3 haur eskolen gastuetarako eta kontsumo bonuetarako partidak nabarmendu dira inbertsioen gaintetik. Dinabideko coworkinga erabiltzeko beka deialdia egiten du udalak. Eta Inasaren historia-memoria jasoko du

## IRURTZUN

Irurtzungo Udalak 1.989.577 euroko aurrekontua du aurten, EH Bilduren aldeko botoekin eta Navarra Sumaren abstentzioarekin onartu zena. Aitor Larraza Carrera alkateak azaldu duenez, "pandemiarekin sortu diren arazoan aurrean herritarrak sozialki babesten saiatu gara".

Horregatik, 12.000 euro bideratu dituzte larrialdi egoeran dauden irurtzundarrendako. "Gizarte Zerbitzuekin harremanetan, garagartzaroan 8.500 euroko partida sortu genuen egoera zailen zeuden familiei arnasa emateko. Partida lastailerako bukatu zen eta beste 4.000 euro jarri genituen. Azaroa bitartean par-

tida horren erabilera handia egon da. Abenduan jaitsi egin da eta espero dugu aurten 12.000 euroekin iristea".

Jauntsarats eta Itzako haur eskolekin hitzarmena sinatuko du Irurtzungo Udalak. Larrazak azaldu duenez, "familia bizitza eta lana bateragarri egiteko, irurtzundarrek beraien 0 eta 3

urte bitarteko umeak zentro horietara eramaten dituzte, eta guk dagokigun zatia pagatuko dugu". Horretarako, 10.000 euro daude aurrekontuan. Alkateak ere azaldu digu zergatik ez dagoen 0-3 zentro bat Irurtzunen: "lau gelako zentro bat egitea, jantzi gabe, milioi bateko aurrekontua du. Nafarroako Gobernuak 100.000 euroko dirulaguntza ematen du. Finantzazioa desegokia da".

Bestalde, irurtzundarren artean herriko establezimenduetan kontsumitzeko joera sustatzeko eta ekonomia jarduera hori bizirik mantenduz herriari bizitza emateko helburua dute kontsumo bonuak. Horretara 27.500 euro bideratuko ditu udalak.

## Inbertsioez

Joan den urtean baino 54.003 euro (%2,64) gutxiago ditu aurtengo aurrekontuak. Alkateak argitu duenez, "aurrekontuan diru gutxiago dago inbertsio faltagatik. Udalak lanak egiteko Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzen menpe gaude. Tokiko Maparen aldaketarekin udal finantziazioa hobetu nahi zen, baina legea garatzea falta da".

Larrazak azaldu duenez, foru administrazioak aurten Tokiko Azpiegitura Plana egiten du eta 2022an eta 2023an inbertsioak egiteko aukera izan beharko lukete udalek. "Irurtzungo Udalean bizpahiru inbertsio zain ditugu. Udalak 337.000 euro inguruko poltsa dugu eta egoera onean gaude behar izanez gero mailegua eskatzeko". Aurrekontu Egonkortasun Legea ere malgutu da. Hala ere, alkateak zehaztu duenez, "dugun diru hori erabiltzeko aukera dugula jakitun izanik,

beharren arabera egiten ditugu inbertsioak, programa segituz".

Hala ere, Nafarroako Gobernuak egiten dituen deialdietara aurkeztuko da Irurtzungo Udala, esaterako, ikastetxe publikoetan berrikuntzak egiteko deialdira. Ekologia Trantsiziorako Ministerioaren laguntza deialdian igerilekuak egungo araudira egokitzeko lanak eta energia berriztagarriak ezartzeko proiektua aurkeztu du, 1.464.110,8 euroko aurrekontua duena.

Inbertsioen atalean 35.000 euro daude parte hartze aurrekontuen bidez irurtzundarrek erabakitzen duten lan egiteko. Lorezaintzako makina bat erosteko 10.500 euro bideratuko dira eta 8.000 euro larrialdiko pisua egokitzeko. "Aurten bukatu nahi dugu udalarena den pisu horren egokitzapena. Bi urte eman ditugu horretan", azaldu du Larrazak. Eta gaineratu du: "Gizarte Zerbitzuekin bilerak egiten ari gara etxebizitzaren erabilera eta kudeaketa zehazteko".

Aurreko urtean bezala, udalak 16 pertsona kontratatuko ditu: udan lan egiteko lau, kale garbiketarako beste lau eta igerilekuetan lanean aritzeko zortzi. Gainera, Gizarte Zerbitzuen Iturraskarri programarako 7.300 euro bideratu ditu. Haren bidez joan den urtean sei pertsona kontratu ziren.

Bestelako inbertsioak ere aurreikusten dira aurrekontuan: kultura jardueretarako 55.000 euro eta garapenean dauden herrialdeetan proiektuak egiteko 10.973 euro. Bestalde, udalak 7.000 euroko sarrera espero du Bi Ahizpe kaleko 11-B zenbakiko 20,56 m<sup>2</sup>-ko espazioaren salmentagatik.

## Kultur diagnosis

Sakanako Mankomunitateko Anitzartean Kulturartekotasun Zerbitzuak eskaerari baiezkota eman dio Irurtzungo Udalak eta herriko kultur diagnosis egiteko 8.500 euro jarri ditu, baina %100an diru lagunduta dago. "Migrazio handia hartu duen herria da Irurtzun eta zerbitzuaren 'argazkia egiteko' proposamena oso interesgarria iruditu zitzaigun", esan du alkateak.

## Dinabide beka

Eraldaketa digitalerako coworking espazioa erabiltzeko aukera eman nahi da beka deialdi horren bidez. "Irurtzundarren bat eraldaketa digitalean ari bada, arlo horretan ari diren beste batzuekin espazioa partekatze aukera izanen du". Larrazak gaineratu du ekin-tzailtza sustatzeko modua ere badela. 2.000 euroko poltsa du beka, hartzaileek gehenez 1.000 jasoko dute. "Aurtengoa proba da, zer harrera duen ikusteko".

## Energia komunitatea

Erronketako bat da energia komunitatea sortzen saiatzea. Horretarako aurreneko bilera heldu den astean egiten dute. Parte hartze prozesu baten bidez sortu nahi dute. Larrazak azaldu duenez, "garrantzitsua da energia burujabetza izatea". Ideia da irurtzundarrek kontsumitzen duten energia eguzki instalazio kolektibo baten bidez sortzea". 3.500 euro daude ikerketa egiteko.

## Inasaren memoria jaso



Irurtzun eraldatu zuen lantegiaren historia-memoria bizirik mantentzeko, lekukotzak jasoko dira. "Inasaren ezarpenak zer

eragin zuen, nola lan egiten zen, langileek beraien eskubideak lortzeko zer egin zuten eta erabaki gunean urrutzearen ondorioz 2012an zer gertatu zen itxiera. Hori guztia jaso nahi da, gazteek eta jendeak horren guztiaren berri izan dezan". Hala azaldu du alkateak egitasmoa. Bi fase izanen ditu lanak. Lehenik elkarrizketak egiten dituzte eta ondoren ikus-entzunezko bat sortuko da. Labrit enpresa arduratuko da horretaz eta 10.500 euro jasoko ditu horregatik.

# Institututik lan arriskuen prebentzioa lantzen

Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren arabera 18 eta 24 urte bitarteko langileek dute lan istripu tasa altuenetako bat. Sakana Lanbide Heziketa institutuko ikasleek gaiari buruzko bideoak egin zituzten

SAKANA

Arlo profesionalean segurtasun eta osasun baldintzetan aritzeko, prebentzio kultura sustatzen du Sakana Lanbide Heziketa institutuak. Altsasun dagoen ikastetxea, eta Nafarroako beste zenbait, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko (ISPLN) ordezkariekin batera, estatuko jardunaldi bertual batean parte hartu zuten abendu akaberan. *Lanbide Heziketa: Zuzendu Prebentzioa* jardunaldi teknikoak ikasleak lan arriskuen prebentzioaren inguruan sentsibilizatzeko saioa izan zen.

ISPLNren aldetik, Javier Cañadak, erakunde horretako Prestakuntza, Informazio eta Ikerketa Unitateko arduradunak, lan arriskuen prebentzioa Lanbide Heziketarekin irakaskuntzen curriculumean sartzea oso garrantzitsua dela azpimarratu zuen bere hitzaldian. Izan ere, Nafarroako Gobernuak, Osasun eta Hezkuntza Departamentuen



Soldadura praktikak egiten. ARTXIBOA

bidez, arreta berezia eskaini zion horri, hezkuntza metodologia berritzaileak aplikatuz.

Gazteak dira, ISPLNren ordezkariak adierazi zuenez, lan istripuren bat izateko joera handiena dutenetako bat. Egoera

jakin batzuei aurre egiteko prestakuntzarik eta konfiantzarik ez dagoenez, enpresaburuek kolektibo horren beharizan espezifikoei buruz ez dakitenez eta beste faktore batzuekin batera, hala nola behin behinekotasun handiarekin eta lan prekarietatearekin, arriskua handitu egiten da. Hori dela eta, "funtsezkoa da, prestakuntza etapatik, istripu tasa murrizten lagunduko duen aurretiazko kontzientziazioan eragitea", azpimarratu du.

Lanbide Heziketaren Europako Astearen baitako topaketa bertualean, gainera, izen bereko deialdira aurkeztu diren laneko arriskuen prebentzioarekin lotutako ikus entzunezko 90 lanen lagin bat ikusi zen. Nafarroatik dozena bat bideo aurkeztu ziren, tartean Sakana Lanbide Heziketa ikastetxeko ikasleek egindakoak. Jardunaldi teknikoak Laneko Segurtasun eta Osasunerako Europako Agentziak antolatu zuen.

## Gogorren elikagai bankuko lotea 77 pertsonak jasotzen dute

Elikagai bankuaren alde hiru zere zozketatu dituzte eta kontzertua antolatu zuten Lekunberrin

SAKANA

COVID-19 gaitza iritsi eta konfinamendua ezarri zen udaberrian. Testuinguru horretan sortu zen Gogor, Langileen Defentsa Antolatua. "Krisialdiaren ondorio latzenak langileriak pairatzen ditugula ikusirik, gure bizitzaren kontrola eskuratzeko tresnak martxan jartzea du helburu, gizarte justua eraikiz". Elikagai bankua izan zen martxan jarri zuen lehen ekimena. Gogorren ekimenari esker, gaur egun Sakana eta Larraunaldeko 77 pertsonak jasotzen dute jaki lotea;



Lekunberriko emanaldia. @GOGORLANGILE

gainera, 33 pertsona itxaron zerrendan daude.

Gogorreko kideek elikagai bankuari bultzada emateko hiru saskiren zozketarako txartelak saldu zituzten eta horiek igandean zozketatu zituzten. Lehenengo zarea 100 zenbakia duenarendako izanen da. Txartel horren jabea ateratzen ez bada ordeko zenbakia 1.707 da. Bigarren saskia 1.237 zenbakiarendako da (2.145 zenbakia da ordeko). Eta hirugarren zarea 2.227 zenbaki-dun txartela duenak eskuratu du (ordezkoa 0514).

Lekunberriko kiroldegian egin zen zozketa igande arratsaldean. Izan ere, Gogorrek kontzertua antolatu zuen: Eñaut Elorrieta eta Zea Mayseko Aiora eta Piti. Sarreretako dirua elikagai bankura bideratu du langileen aldeko erakundeak.



Espazio publikoetan banatutako orri markatzaileak.

## Sentimendu ezkorrei buelta emateko erreminta kutxa

Gizarte Zerbitzuek laguntza baliabideen berri ematen duten orri markagailuak sortu eta banatu ditu

ALTSASU / OLATZAGUTIA / ZIORDIA

Gertuko pertsonaren bat hil, lana galtzeagatik edota osasun arazoengatik ezkor, nahasia, triste edo beldurtuta senti gaitezke. Normalean hala gerta daitezke, eta COVID-19 garaian are gehiago. Sentimendu horiei buelta emateko tresna izan daitezke barre egitea (barre-terapia), erabiltzen ditugun informazio iturriak (hedabideak edota sare sozialak) aukeratzea eta mugatzea, ondo lo egitea (atseden hartzea), ariketa fisikoa egitea, norbere burua mimatzea, erlaxatzea, esker ona adieraztea, abestea edo dantzatea.

Egoera zail horiei buelta Altsasu, Olatzagutia eta Ziordiko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak, Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin, "Emozioen orri markatzaileak" sortu ditu. Arantxa Erbiti Belokik azaldu dutenez, "egoera zail batean fun-

tsezkoa da pertsona bakoitzak onartzea nola sentitzen den eta gogoia eta indarra izanez gero, sentimendu hori aldatzen saiatzea, hobeto egoteko".

Horretan lagundu nahi dute prestatu dituzten eta liburutegi, botika, liburu denda, ikastetxetan eta bestelako toki publikoetan topatu daitezkeen orri markatzaileak. Haietan dagoen QR kodea eskaneatuz edo mankomunitatearen beraren blogera zuzenean joz (<https://labur.eus/B3zcz>), egoera horiei buelta emateko tresna eta material lagungarriak eskuratu dituzte edozeinek. Besteak beste jolasak, txistak, musika aukera, karaokea, dantza pausoak ikasteko aukera ematen duten Interneteko atarien berri ematen dute. Guztia argitzen laguntzen duen artikulua ere irakurgai dago. Guztia bidez herritarren osasuna eta prebentzioa sustatu nahi dira.

## Joan den urtean sakandar bat hil zen trafiko istripuan

Euskal Herrian 71 pertsona hil ziren trafiko istripuetan joan den urtean, 2019an baino 20 gutxiago. Haietatik 18 nafarrak dira eta, zoritxarrez, zerrenda horretan sakandar bat dago. Atzera begiratu, 2019an ez zen trafikoagatik hildako sakandarrik izan, baina 2018an eta 2017an, ordea, hiruna sakandar hil ziren errepideetan.



Ibilgailua Lizarragako zeharbidean.



# Lantegia saltzeko zain inbertsioak zehazteko

Baso aprobeixamenduak emandako diruarekin hainbat lan egiteko aukera izanen luke kontzejuak. Beste lantegi bat ateratzeko bidea konpondu da Atazabalen eta LED argiak jarri dira argiteria publikoan

DORRAO

Urte batetik bestera gutxi aldatu da Dorraoko Kontzejuaren aurrekontua. Joan den urtekoarekin alderatuta 800 euro gehiago ditu aurten kontzejuak kudeatzeko, guztira 51.700 euro. Idoia Resano Igoa kontzeju buruak azaldu duenez, diru horrekin inbertsioak egiteko tarte gutxi dute. Beheko basoan lantegia saltzeko dute eta handik etortitako diruak inbertsioak egiteko aukera emanen lioke Dorraoko Kontzejuari.

Resanok azaldu duenez, "lantegien salmentatik lortzen den diruaren %20 berririo basoan inbertitu beharra dago. Gainontzeko %80arekin gauzak egin daitezke. Guk, auzoan, maistraren etxeko teilatua konpondu, goian alokatzeko bi etxebizitza egin eta behean denda bat eginen genuke, pandemia garaian primeran etorriko litzazukeena. Baina, lehenengo lantegia saldu behar da, eta, ondoren, batzarrean erabaki behar da herrian zer behar dauden eta zer egin diru horrekin".

Aurretik saldutako lantegi baten %20ko diruarekin Atazabalgo bidea konpondu zuten, "han beste lantegi bat salduko dugulako". Inbertsio hori eginda, nekazaritza azpiegiturak hobe-



Sutarako egurra Aizkardi kalean pilatuta. ARTXIBOA

tzeko laguntza deialdira aurkeztea aztertuko dute, hainbat pistak konpontzeko premia baitute, "eta elurra egin ondoren nola geldituko diren ikusi behar da".

Dorraoko farolek dagoeneko LED argiekin argizatzen dute. Dorraoko Kontzejuak argiteria publikoa eraginkorragoa izateko eta faktura murrizteko erabakia hartu zuen. Gainera, San Pedro ermitarako bidean bi banku jarri zituen, pasieran ibiltzen diren aiton-amonek non eseri izateko.

Goian aipatutako arrazoi berengatik, kontzejuak kideek

frontoian ere LED argiak jarri nahiko lituzkete noizbait. "Foku pila bat daude gaur egun. Gainera, argia jartzeko sistemak ez du funtzionatzen. Dirua botata pizteko sistema hautsita dago, tranpa egiten du jendeak eta frontoia argizatzen du pagatu gabe", azaldu du Resanok. Azkenik, jakinarazi du, Nafarroako Gobernuaren araztegia kokatuko den lurren jabeekin akordioa itxi duela eta hura eraikitzeko tramiteak aurrera doazela. Aurten eginen dute azpiegitura berria.

antolatzaileak. Irurtzungo eta Lakuntzako saioak abenduan egin ziren, Etxarri Aranazkoa atzo. Eta heldu den ostegunean, 19:00etan, Olatzagutiko kultur etxean despedituko da zikloa. Goreti Etxepare Alberrok Kattalingune LGTBI+ zerbitzuaren berri emanen du. Gainera, Hormak, mendialdeko LGTBI+ taldeak bere burua aurkeztuko du. Haiekin batera, Naizen, adingabe transexualen familien elkarreko kide baten testigantza entzuteko aukera izanen da.

## 'Askotariko Sakana' zikloa Olatzagutian despedituko da

Gonbidapena alde aurretik eskuratu behar da [berdintasuna@sakana-mank.eus](mailto:berdintasuna@sakana-mank.eus) e-posta helbidean

OLATZAGUTIA

Sakanako Mankomunitateko Berdintasun Zerbitzuak eta Kattalingune Nafarroako Gobernu LGTBI+ zerbitzuak *Askotariko Sakana*. Aniztasuna eraiten zikloa antolatu zuen udazke-

nerako. Sexu eta genero aniztasunaren informazioa zabaltzeko helburua du zikloak. Pandemiari aurre egiteko neurri murriztaileek lehenik atzerarazi zuten egitaraua eta, ondoren, egitaraua bitan banatzera behartu zituen



Etxeberri eta Ihabarko ikuspegia Ibrañetatik.

## Zer nolako Arakil eta herria nahi duzu etorkizunean?

Arakilen beharrak, nahiak edota beharrezko proiektuak identifikatzeko parte hartze prozesua martxan jarri dute

ARAKIL

Ibarra dozena bat herriz osatuta dago eta herri bakoitzak errealitate eta ezaugarri desberdinak ditu, baina hamabien artean osatzen dute Arakil. Oihana Olaberria Jaka alkateak adierazi duenez, "parte hartze prozesuaren bidez ibarreko errealitate horiek ezagutu eta etorkizuna irudikatze". Eta prozesua abiarazteko ibarreko erronkak, ga-beziak, indarguneak, galdetegi bat prestatu dugu. "Helburua da herrien ikuspegiak jasotzea". Horretarako, ahalik eta arakildar gehienek galdetegia erantzutea nahi lukete Arakilgo Udaleko arduradunek, "emaitza plurala izateko".

Hamasei urtetik gorakoek erantzun ditzakete galderak, Arakilen erroldatuta egon edo ez. Galdetegia arakildarren artean WhatsApp aplikazioaren bidez zabaldu du Arakilgo Udalak. Bestela, <https://labur.eus/kGsM7> loturaren bidez lortu daiteke galdetegia. Baina paperean erantzuteko aukera ere izanen da. Horretarako, Arakilgo Kultur Kontseiluko kide diren herrietako ordezkariengana jo behar da. Galdetegia abendu akaberan zabaldu zuten eta erantzunak hilaren 20ra arte eman daitezke. Erantzunak jaso ondoren Arakilgo Udalak, Emun enpresarekin batera, balorazio txostena eginen dute eta hura arakildarren esku utziko dute.

Olaberriak azaldu duenez, "parte hartze prozesua joan den urtean aurrera eramane nahi ge-

nuen. Urte osoko prozesua zen, baina egoera dela eta bertan behera utzi genuen. Inkesta hasiera puntutat jotzen dugu eta aurreikusten dugu prozesu zabalago eta sakonago bat egitea, baina egoerak aginduko du". Alkateak azpimarratu duenez, "oso beharrezkoa ikusten dugu ibarra pulsatzea, jendeak norantz joan nahi duen, zein diren benetako beharrak jakitea".

**Galdetegiaz**

Adinaz, generoaz, herriaz, herrian egiten den bizitzaz, bizitza horren gogobetetzeaz, ibar sentipenaz eta bestelakoak galdetuz hasten da galdetegia. Arakilgo zerbitzuaren inguruko galdera sorta bat ere badu galdetegiak, besteak beste: ibarrak dituen zerbitzuekin gustura zaude? Zein zerbitzu, ekin-tza edo proiekturen falta sumatzen duzu? Ibarrean zerbitzu gehiago baleude erabiliko zenituzke? Udaletxea Irurtzundik beste kokaleku batera eramatea gustatuko litzazuke? Ibar guztiari zerbitzuak emateko espazioak behar dira?

Etxebizitza premiari eta azpiegitura handiei buruz ere galdetzen zaie arakildarrei. Ingurumena ere bada galdegaia eta kutsadurari buruzko kezka, egungo laborantza ereduari buruzko iritzia eta horri lotutako zein proiektu garatuko lituzketen galdetzen zaie arakildarrei. Lan arloaz aparte eta adinekoen, gazteen eta haurren egoerari eta beharrei buruzko galderak ere baditu galdetegiak.



Ekimeneko kideek "lakuntzako historiaren zati bat" jaso dute liburuan. ARTXIBOA

## Arregi Marin gogoan izateko liburua aurkeztuko dute

Lakuntzako kultur etxean igandean, 12:30ean. Argazki proiektioa izanen da, baita liburua eskuratzeko aukera

### LAKUNTZA

Mikel Arregi gogoan herri ekimenak "1979ko azaroaren 11n izandako gertakari bortitzen oroimen historikoa berreskuratu eta gordetzea" du helburu. Egun hartan guardia civilek auto bat metrailatu zuten Etxarri Aranatzan eta, ondorioz, Mikel Arregi Marin hil zen. Herri ekimeneko kideen iritziz, "gertakari haiek lakuntzar askoren orimenean daude oraindik, baina lau hamarkada pasa dira dagoeneko eta herri batek hegan egin eta aske hegan egin ahal izateko hegoak behar dituen bezalaxe,

ezinbestean bere sustraiak eza-gutu behar ditu".

Arregi Marinen familiak lan handia egin du gertaeren inguruko dokumentazioa jasotzen eta justiziaren bidean egiaren aitortza bilatzen. Herri ekimeneko kideen iritziz, ordea, "ez da familia baten kontua soilik. Herri baten historiaren zati bat da. Gure herriaren historiaren zati bat". Horregatik, herri ekimenak orain arte jaso den informazio guztia liburua batean bildu du, "gertaeren dimentsio osoa islatzeko asmoz, herriaren historia ezagutzeko".

### DUELA 25 URTE...



## Pilotari txapeldunak

Uharte Arakilgo Larrabieta pilotalekuak hartu zituen VIII. Sakanako Pilota Txapelketako finalak. Aurrebenjaminetatik kadete maila bitartean zortzi mailatan jokatu ziren finalak. Irurtzangoak izan ziren bi txapeldun eta bi txapeldunorde. Uharte Arakilen txapel bat eta txapeldunordeen hiru sari gelditu ziren. Txapeldun etxarriar bat izan zen. Altsasuko pilotariak bi txapel eta bi txapeldunorderen oroigarriak lortu zituzten. Azkenik, pilotari olaztiarrendako bi txapel izan ziren.

# Sarek "oinarrizko sei eskakizun" egin ditu

Eskaera horiek "elkarbizitzarako bidean ematen ari garen urratsekin batera garatu beharrekoak dira". Sarek "etxerako, elkarbizitzarako eta bakerako bidean aurrera egiteko "bizipen eta pentsamendu desberdinetako" milaka pertsona elkartu zituen

### SAKANA

Sarek deituta, *Bidea Gara* lelopean, Euskal Herriko 240 herritan, Sakanako 15etan, euskal presoan aldeko kontzentrazioak egin ziren larunbat arratsaldean. Sareko kideek adierazi zuten, "nor bere eran. Bakoitza bere ideiak soinean eta, norbere sentipen eta bizipenak altzoan, baina bide berberaren baitan. Etxerako, elkarbizitzarako eta bakerako bidea".

Herrietako plazetatik sei eskari zabaldu zituen Sarek, "aurrera begira ere bide honen baitan jorratu nahi ditugunak. Lehena, euskal presoan Euskal Herriratzeara, urrunte-politikarekin behingoz bukatu eta senideei ezarritako zigor erantsia eten dadin". Horrekin batera, Sareko kideek eskatu dute, "euskal preso guztiei gradu progresioa ahalbidetzea, preso guztiak jarraitu beharreko birgizarteratze eta etxeratze prozesua egin dezaten". Gainera, larriki gaixo diren pre-



"Bidea gara" adieraziz. UTZITAKOIA

soak etxera ekartzea eskatu dute, "dagokien artatzea senideen babes eta konfiantzarako medikuaren jarraibideekin jaso ahal izateko".

Eskaeren artean ere adinez nagusiak diren presoan etxeratzea zegoen, "euren osasuna eta bizi-

tzeko eskubidea lehenetsiz". Bosgarren eskaera, berriz, "aita, ama edo biak espetxean dituzten motxiladun haurrek gurasoekin bizitzeko duten eskubidea errespetatzea, hala nola, preso diren pertsonen guraso izateko duten eskubidea bermatzeko neurriak hartzea". Azkenik, Sarekideek eskatu zuten "kontuan hartzea Frantziar betetako zigor urteak Espainiar ezarritako zigorarean, zigorren batuketa eginaz".

Frantziar "Xistor Aranbururen baldintzapeko askatasunak itxaropen-bide berriak zabaldu ditu, fiskaltzaren blokeo jarraera hautsiz. Espainiar, berriz, presoan lekualdatzeak eta gerturatzeak jarrera aldaketa gertatzen ari dela erakusten du". Sareko kideen iritziz, mugimendu horiek "nahikoa" ez direla, baina "bidea badela erakusten digu" eta bide hori "finko" bilakatzeko bermea elkartutako jende guztia dela gaineratu zuten.



## Gaztetxea ez ixteko deia

Altsasuko Gazte Asanbladak jakinarazi duenez, guardia civilek bere hiru kideri gaztetxea ixteko asmoa zutela jakinarazi zieten abenduaren 31n. Horretarako, Altsasuko Udalarekin harremanetan jarriko zirela jakinarazi zieten. Altsasuko Gazte Asanbladako kideek udalari exijitu diote "Guardia Civilak hasitako prozesuan ez parte hartzea".

## Ospak Altsasun 304 kontrol zenbatu zituen 2020an

Errepresioaren kontrako Ospa mugimenduak jakinarazi duenez, joan den urteko iraila eta abendua bitartean Altsasun 110 kontrol zenbatu zituen, "baina gehiago izan daitezke" gaztigatu dute. Kontrol horietatik 70 Guardia Civilarenak izan ziren eta gainerako 40ak Foruzaingoak jarritakoak.

Ospako kideek aurretik jakinarazi zuten 2020ko ilbeltza eta apirila artean 102 kontrol zenbatu zituztela. Eta maiatza eta agorrila artean, berriz, 92. Errepresioaren kontrako mugimenduak zabalduzako datuen arabera joan den urtean jarritako 304 kontroleratik Guardia Civilak 178 jarri zituen eta Foruzaingoak 126.

# Beikolarko plan berezia jendaurreko epean

Alegazioak aurkezteko interesa dutenek epea otsailaren 24ra arte dute zabalik. Hirigintza plan bereziari buruzko dokumentazioa udaleko bulegoetan edo [www.altsasu.eus](http://www.altsasu.eus) webgunean kontsultatu daiteke

## ALTSASU

Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren martxoaren 15eko 127/2017 epaia betez, Beikolar auzoa urbanizatu egingen du Altsasuko Udalak, horretara beharzen duen epaia irmoa baita. Beikolarko Hiri Jarduketarako Plan Berezia, bizitegi erabilerrako, Tokiko Gobernu Batzarrak onartu zuen 2020ko azaroaren 30an, eta jendaurreko informazio aldian dago. Baikolar Bizirik taldeko kideek behin baino gehiagotan adierazi dute "babesgabe" sentitu direla.

Altsasuko Udalak bi aukera zituen eremu hori arautzeko: egun dauden etxebizitzak finkatzea edo eraikin guztiak botatzea. Aurreneko aukeraren alde egin du udalak eta familia bakarreko etxebizitza librea ezartzeko gune gisa kalifikatu du (7.250 metro karratu). Planteatutako kalifikazioarekin bateragarriak diren zazpi etxe mantendu egingen dira eta gainontzeko azalera



Etorkizuneko Beikolar hala irudikatu dute.

pabiloiak, txabolak eta lantegiak, zazpi, bota egingen dituzte. Azken horien jabeek dagokien kalte ordaina jasoko dute.

Ingurunea urbanizatu ondoren gutxienez 300 metro karratu izanen dituzten 29 partzela sortuko

dira. Beraz, dauden zazpi etxebizitzekin batera, guztira 36 etxebizitza aurreikusten dira etorkizunean inguru horretan. Beikolarren ez da babestutako etxebizitzarik izanen, 2002ko hirigintza planean eremu horre-

tarako halakoak eraikitzea ez zelako zehaztu.

Ipar-hegoa norabidea duen gaur egungo bidearen ezkerrean eta eskuinera kaleak egingen dira. Eta ekialdean oinezkoendako eta bizikletendako bidea aurreikusi da, dermioko bideekin bat egiten duena. Bestalde, mendebaldea, autobidaren ondoan libre geldituko den espazioa egonen da, etxe berriak trafikoak sortzen duen soinetik urruntzeko. Hala beste espazio bat kokagunearen iparraldean egonen da, bidearen ondoan, guztira 3.152,17 m<sup>2</sup>. Azkenik, inguru berean berdegune bat aurreikusi da 1.087,5 m<sup>2</sup>-ko azalera izanen duena.

Inguru hori urbanizatzeak dirutza balioko du: 1,5 milioi euro inguru. Urbanizazio lanak kooperazio sistemaren bidez egingen da, hau da, lur jabeen kontura. Udala da lur jabeetako bat eta milioi erdi euro inguru pagatu beharko du. Gainontzeko jabeek milioi bat euro pagatu beharko dute. Duten azalaren arabera egingen lukete ordainketa jabeek.

Auzokideek Beikolar Bizirik plataforma sortu dute, egitasmoarekin ados ez daudela adieraziz: "familia gutxi gara eta oso zaurgarri sentitzen gara".

## Auzibide baten emaitza

Altsasuko Udalen 2002ko hirigintza planean bizitegi izaera eman zion Beikolarri. Baina hirigintza garapenik egin ez ze-

nez, lur jabe batek epaitegira jo eta administrazioarekiko auzierrekurtsua jarri zuen. Iruñeko Administrazioarekiko Auzien 3 zenbakiko Epaitegiak, 81/2007 prozeduran emandako 2008ko martxoaren 26ko 72. epaiaren bidez, Altsasuko Udala kondenatu zuen inguru horren Plan Berezia eta Birpartzelazio Proiektua idaztera. Epaia hori betez, Nekazaritza eta Abeltzaintza Erabilerrako Plan Berezia onartu zuen (2015ean behin betiko onartua). Nekazaritza eta abeltzaintza erabilerrako Plan Berezi hori baliogabetu egin zen gerora, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak (127/2017 epaia, martxoaren 15ekoa) ulertu baitzuen ez zirela betetzen 2002ko hirigintza planean ezarritako zehaztapenak (funtsean, eremurako planteatutako erabilerratik eratorritakoak).

Ordutik egiten ari den beteazpen judizialeko prozesu baten ondoren, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak udala behartu du Beikolarrerako bizitegi erabilerrako Plan Berezi bat onartzera eta izapidetzera, 2002ko planaren eta 2017ko martxoaren 15eko epaiaren arabera.

## DAUDEN ZAZPI ETXEAK MANTENDU ETA BESTE ERAIKINAK BOTATZEA AURREIKUSTEN DA

## Zelai kaleko ur hornidura sarearen zati bat berrituko da

106 eta 146 zenbakien arteko hornidura hodia berritzeko lanak astelehenean hasiko dira

## ALTSASU

Zelai eta Erburua kaleen bidegurutzetik iparraldera dagoen errotonda pareraino, 165 metro horietan, ur hornidura sareko hoditeria ordezkatuko du Altsasuko Udalak. Gaur egungo fibrozementuzko hodiak burdinur-tuzkoekin ordezkatuko dituzte. Aldaketa horrekin, ur hornidura sarearen parte horretan izaten diren hodi hausturak, eta ondorengo ur mozketak saihestu nahi ditu Altsasuko Udalak. Mozketak izaten direnean Zelai kaleko parte horretako 33 familiari eta

Erburua kaleko bizilagunei eragiten die.

Zelai kalean sareak, zoladura eta zerbitzuak kanalizatzeko lan handiak egin ziren 2005. eta 2006. urteetan, baina aipatutako zatia lanetatik kanpo gelditu zen. Astelehenean hasiko diren lanak Construcciones Valeriano Santesteban, S.L. enpresak egingen ditu eta haiengatik 32.906 euro (BEZ kanpo) jasoko ditu.

Enpresa berak Egutera auzoko 11, 13, 15, 18 eta 46. eraikinen ondoan dagoen plaza txikiko zoru berrituko du. Izan ere,



Altsasuarrak Zelai kalean gora, lanak egingen diren inguruan.

elurra azkarrago urtzeko botatuko gatzak lur gaineko geruza eskarifikatu da, eta horrek zoladura zimurtsuegia eta arrisku-suegia eragiten du nahi gabe eroriz gero. Zorua berritzeko lan horiengatik Altsasuko Udalak

19.273,67 euro (BEZ kanpo) pagatuko du.

## Hirigintza plana

Altsasuko Udala buru-belarri sartuta dago Udal Plan Orokorra edo hirigintza plana berritzeko

prozesuan. Etorkizuneko Altsasuko hirigintza aldetik izanen duen itxura zirriborrotzen ari da gaur egun.

Eta egiteko horretan lehen lana da lurraldearen okupaziorako estrategia eta ereduaren atariko bertsioa egitea. Altsasuko Udalak hura azaroaren 26an onartu zuen, eta hirigintza hazkunde mugatua aurreikusi du herrirako.

Aipatu agiria Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, iradokizunak aurkezteko epea otsailaren 10era arte dago zabalik. Hirigintza planeko lurraldearen okupaziorako estrategia eta eredu udal bulegoan kontsultatu daiteke, edo [www.altsasu.eus](http://www.altsasu.eus) webgunean. Dokumentu hori azaltzeko Altsasuko Udalak saio publiko antolatu zuen Iortia kultur gunean herenegun.

# Hilabetean euro baten

Urteko bazkidetza 60€

Meknari esker errenta aitorduz duzu, beraz, 12€ren truke



## 9 LANGILE

Kazetariez, maketatzaileaz, disenatzaileez, publizistaz, administrariaz eta kudeatzaileaz osatutako lan taldea



## 21 BANATZAILE

Elurrari, euriari, haizeari eta eguzkiari desafio eginez astero Guaixea zuen etxean jaso dezazuen herri gehienetan, **banatzaile sarea** dugu



## ZAINTZAK

Mobilizazio eta ekitaldi asko dituen eskualdea dugunez eta ahal dugun informazio guztia bildu eta bazter guztietara iristeko asmoz, zaintzak egiteko **kazetari sarea** dugu



## KOLABORATZAILEAK

Eskualdeko jendez osatutako **kolaboratzaile sarea** dugu. Batzuek gai interesgarriak betetzen dituzte Guaixeko atal ezberdinak. Zuzentzaileek aldiz, testuak fintzen laguntzen digute



## LAGUNTZAK

Bazkideek, Sakanako Mankomunitateak, Nafarroako Gobernuak eta Meknak laguntza ematen digute. Hauen laguntza ezinbestekoa da gure proiektuak aurrera egin dezan



# truke

ean %80 berreskuratzen  
bazkidetu zaitezke

AN  
KIN  
TA  
AT  
EUSKARAZ

guaixe  
fundazioa

## Bazkidetu orain eta jaso **oparitxo bat!**

Eskaintza honek stocka bukatu arte iraungo du

### GUAIXE ASTEKARIA

Sakanako informazio guztia, euskaraz. Bazkideek ostiralero **astekaria** postontzietan eta e-postan jasotzen dute



### BELEIXE IRRATIA

Astelehenetik ostiralera 10:00etatik 12:00etara **Egun on Sakana saioa**. Guaixe.eus-en online entzungai. Sakanako informazioa euskaraz



### GUAIXE SAREAN

Sakanako informazio eguneratua euskaraz eta 24 orduz egunean, **guaixe.eus** webgunean eta Guaixeren sare sozialetan



### ZERBITZUAK

Sakanako gida komertziala, paperezkoa eskualdeko postontzi guztietara banatzen da eta **online** bertsioa, laster berrikuntzekin! **GK** diseinu eta komunikazio zerbitzua behar duzun edozein lan egiteko prest!



### ABANTAILAK

Bazkide izateagatik **hainbat deskontu eta abantaila** eskaintzen ditugu. Egiten diren bazkide zozketetan ere **sari interesgarriak** izaten dira



uaixe  
fundazioa

# Autonomoek "zerga sistema justua" nahi dute

Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergatik modulu bidezko zerga ordainketarik ez dute urte hasieratik. Autonomoen iritziz horrek haien gaineko zerga presioa bikoiztu egiten du. Araudiaren kontra mobilizazioak egin zituzten, eta egiten segituko dute

**Maidar Betelu Ganboa** SAKANA

Hainbat ekonomia jardunetan aritzen diren langile autonomoak bat egin dute Nafarroako Gobernuari "zerga sistema justua" eskatzeko. Garraiolariak, taxi gidariak, ostalariak, nekazariak, merkatariak, mekanikariak, ile apaintzaileak, harakinak... eskakizun bera dute: zergak ordaindu nahi dituzte, baina justuki. Ez daude ados Nafarroako Gobernuak autonomoen Errentaren Gaineko Zergan egin nahi duen aldaketarekin.

Izan ere, aurtan Nafarroako Gobernuak Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zerga Aitorpena moduluka edo atalka egiteko aukera kendu du, eta horren ordez Zuzeneko Estimazioaren Araubidea ezarri. Aldaketa hori egiteko Foru Legea onartu zuen Nafarroako Parlamentuak abenduaren 23an. Esan bezala, autonomo asko ez daude batere ados aldaketa horrekin. Horrela, Nafarroako autonomoen 11 elkartek -TRADISNA, ANET, UAGN, AITAN, Nafarroako Merkatari Elkarteak, ANAPEH, AEHN, ANTRV, Nafarroako Harakinen Gremioa, Nafarroako Ile Apaintzaileen Elkarteak, CEAT-, plataforma bat osatu dute euren eskakizunak bideratzeko. Guztira Nafarroako 45.000 familia inguru ordezkatzen dituzte.

## Ezkakizunak

Plataformatik adierazi dutenez, behin baino gehiagotan saiatu dira Nafarroako Gobernuarekin negoziatzen, moratoria bat zehaztu eta elkarrekin lan egiteko. "Koronabirusak sortutako munduko krisi baten erdian gaudela, ez da Errenta Aitorpena moduluka edo atalka egiteko aukera kentzeko unea. Eta are gutxiago erabakia presaka hartzea, sektore bakoitzak dituen ezaugarriak eta beharrak kontuan hartu gabe" diote autonomoek.



Kamioiak autobidean. ARTXIBOA

## "ZERGA ALDAKETA EZ DA GAUDEN KRISITIK SENDOAGO ATERATZEKO TRESNA BAT"

Gaineratu dutenez, zerga sistema berriak kalte ugari ekarriko dizkie, hainbat gastu eta inbertsio ezinen dituztelako zerga bidez kendu. Esaterako, garraiolariak kexu dira zerga sistema berriari kamioiaren erosketak gastua ezinen dutelako kendu. Eta nekazariak diote ezingo dutela lursailen kostua, nekazari-tzako makineria eta beste amortizatu. "Gurean inbertsio handiak egin behar dira, eta zerotik hasi ezinezkoa izanen da" diote. Beste sektore batzuk ere kexu dira, eta jasango duten zerga presioa "bikoiztu eta kasu batzuetan hirukoiztuko dela" diote. "Zuzeneko estimazioa izan nahi badute, Errenta Aitorpenean ditugun gastu eta inbertsio guztiak sartzea utz diezagutela" azpimarratu dute.

Araudi aldaketak autonomoak "larri zaurituta" uzten dituela

nabarmendu dute. Espainiar estatuko gainontzeko autonomoekin alderatuta ez direla lehiakorrak izanen uste dute. "Guztiak berdin kobratzen dugu baina guk gehiago ordaindu beharko dugu" diote.

## Eskaerak

Autonomoendako konponbidea Nafarroako Gobernuarekin hitz egitea da. Elkarrizketa. "Autonomoendako Zerga Aitorpen sistema berria indarrean jartzeko bidean, bi urteko moratoria edo trantsizio epea jasotzea eskatu genion azaroan Nafarroako Gobernuari. Bi urteko epe horretan gaur egungo zerga sistema mantentzea eskatzen diogu Gobernuari, eta bitartean sektorekako lantaldeak sortzea, Ogasun Departamentuko eta autonomoen ordezkariak osatutakoak, zerga sistema berriari sektore ekonomiko bakoitzaren berezitasunak kontuan hartzeko eta sistema berriari jasotzeko" dio autonomoen plataformak. Bi urteko epealdia eskatu dute ere autonomoak zerga ordainketan eginen diren aldaketetara "modu zuzur, eraginkor eta adostuan egokitzeko beta izateko".



Olatzagutiko udaletxea. ARTXIBOA

## LABek udalak kaleratutako langilea hartzeko eskatu du

Udalarendako 20 urte baino gehiago aritu da lanean eta langileen ordezkaria da kaleratua

OLATZAGUTIA

Udaleko LABeko kideek jakinarazi duenez, Olatzagutiko Udalak bere langile bat kaleratu zuen abenduaren 29an. LABeko kideek azaldu dutenez, langilearen kaleratzea "ezustean etorri da, ez interesdunari ez gainerako langileen ordezkariet aldez aurretik jakinarazi gabe". Sindikatutik adierazi dutenez, kaleratutako langilea "prozesu mediko luze baten ondoren, eta ezintasun bat aitortu ondoren, birkokatze saiakera prozesu batean zegoen, indarrean dagoen Lan Hitzarmenean horretarako eskubidea aitortua baitago, betiere enpresan jarraitzeko asmoa izanik". Sindikatutik azaldu dutenez, "orain arte izandako elkarrizketa guztietan, EH Bilduko taldeak birkokatze hori egiteko borondatea agertu zuen". Gaia aztertzeke lehen hartu-eman abenduaren 15ean izan zuten aldeek eta langilearen "birkokatzea ebazteko konpromisoa hartu zen"; gainera, ilbeltz hasieran biltzeko gelditu ziren.

Olatzagutiko Udaleko LABek "estilo neoliberal garbian egindako kaleratzea" salatu du. Gaztigatu dutenez, kaleratutako langileak "ez du kalte ordainik jasoko eta langabeziarako esku-biderik gabe geldituko da; lan-mundura bueltatzeko adin zailan, lan gaitasuna murriztuta, familia kargekin. Babesik gabe". Horregatik, Olatzagutiko Udalarari "gizatasun gehixeago" eskatu eta langilea berriro hartzea exijitu dute LABeko kideek.

Sindikatuak udal ordezkariet udalari leporatu diote "sindikatuak plantilla osorako eta, bereziki, langilearen birkokatzea egin duten planteamendua ez entzutea. Prebentzio zerbitzuetan ere ez duzue kontsultatu egin langilearen birkokatzea serio ki tratatzeko geratu zaion hondar-ahalmena. Txosten juridiko susmagarri batean ezkutatu zarete, txostenak ezinezkotzat hartzen omen du birkokatzea". LABeko kideen iritziz, "ebazpen horrek ez du inolako lege oinarririk. Are gutxiago Batzorde Mistoaren babesik".

## Txostena

Olatzagutiko alkate Joseba Vi-zuete Askargortak azaldu duenez, udal idazkariari langilearen egoerari buruzko lege txostena eskatu zituen. Agiriak ondorioztatzen zuten langilea udal lantaldean birkokatzea ezinezkoa zela eta, beraz, zerbitzutik kendu beharra zegoela, "gaur egun plantilla organikoan hutsik dagoen eta Gizarte Segurtasunak aitortutako ezintasun iraunkor osoko deklarazioarekin bat ez datorren lanpostu egokirik ez dagelako".

Alkateak nabarmendu duenez, "udala lotuta dagoen lege zerbitzuen irizpide teknikoetan oinarrituta hartu dira erabaki edo ebazpen guztiak". Gaineratu duenez, "jakinik egoera inoren-dako ez dela atsegina, azpimarratu nahi dugu atea zabalik dugula lege zerbitzuek kontratatutako eta bermatutako konponbide bat bilatzen saiatzeko".

# Altsasuko auziaren laburbilduma ikusgai

Iortia kultur gunea asteartetik otsailaren 2ra arte 'Testigantza' erakusketa hartuko du. Altsasuko auziak orain arteko lau urteetan emandako guztia bost ataletan jaso dute. Soilik Altsasun ikusteko aukera izanen da; horregatik, Twitter bidez zabalduko dute

## ALTSASU

Altsasu Gurasoak taldea, Altsasukoak Aske herri plataforma eta auzipetuak elkarlanean ondutako erakusketa da heldu den astean ikusteko aukera izanen dena. "Altsasuko auzia ez da bukatu, fase bat itxi nahi dugu prozesuaren bilduma den erakusketa horrekin. Bestelako aldarrikapenei lekua uzteko garaia dela uste dugu. Eta gu beste nonbaiten kokatzeko ere. Herriari, eta Euskal Herriari, zerbait adierazteko beharra genuen". Hala azaldu digu plataformako kide Eneko Mendiluzek.

Altsasuko auzia fase berrian sartuta ere, Jonan eta Julen dira auzipetuen artean aske ez dauden bakarrak. Lanera edo ikastera ateratzeko aukera dute, baina astez gauak kartzelan ematen dituzte, baita asteburuak ere.

## Erakusketaz

Iortia kultur guneko erakusketa gunera sartzen denak bost espazio opatuko ditu, bakoitza gai bati eskainitakoa. Lehenengoari *Gune beltza* izena eman diote. Han jasoko dituzte hedabideen jokabideak, espetxea, epaiketa, polizia... *Atxikimenduak* izena du bigarren gunea. Haien aldarrikapenarekin bat egin duten guztien lekukotzak jasoko dituzte espazio horretan.

Erakusketako bisitariak arrera egin eta *Herriaren indarra* gunea opatuko du. Auziaren inguruan Altsasun egindako ekitaldien bilduma ikusteko aukera izanen da: giza katea, kultur asteburuak, gastronomia elkarreetako bazkariak, hasieran hilaren 14era egiten ziren mobilizazioak eta beste. Laugarren guneak *Mobilizazioa* izena du eta bertan Iruñeko eta Altsasuko mobilizazio handienei tokia egiten zaie. "Inoiz ikusi ez diren irudiak egonen dira ikusgai".

Azken guneak *Elkartasuna* izena du. "Herri askotako jendea



Altsasuko auzian etapak ixten ari dira.

gerturatu da eta elkartasun keinu ugari izan dituzte". Haien lekukotza ere jaso nahi izan dute. Bestalde, aretoaren erdialdean bi mahai izanen dira eta haietan Altsasuko auziari buruzko prentsa hemeroteke kontsultatzeko aukera izanen da. Gainera, lau urteetan zehar plataformak sortutako hainbat euskarri ere ikusgai izanen dira.

## Twitter

Altsasuko auziaren lau urteko ibilbidea laburbiltzen duen erakusketa ikusgai dagoen bitartean, manifestazioetan erabilitako Injustizia hitza osatzen duten hizki handiak kultur gunearen kanpoko aldean egonen dira.

Pandemiak eragindako mugikortasun murrizketak kontuan izanik, erakusketa soilik Altsasun ikusteko aukera izanen da eta ez da beste inora mugituko. Horregatik, antolatzaileek haren zabalkundea Twitter bidez egingen dute. Gune bakoitzari buruzko bideo bat egingen dute, haien edukiak jasoz, eta bideoak banaka zabalduko dituzte Twitter bidez erakusketaren ordena berean: ilbeltzaren 26an, 28an eta 30ean eta otsailaren 2an eta 5ean.

## Auzia European

Estrasburgon dagoen Giza Eskubideen Europako Auzitegian abokatuek auzipetu bakoitzeko helegite bana aurkeztu dute urte hasieran. Defentsek idatzi horietan argudiatzen dute Espainian epaile inpartzial bat izateko eskubidea urratu zaiela, eta aurkeztutako frogak onartu ez izana.

Lehenik gogorarazi dute Espainiako Auzitegi Nazionaleko Concepcion Espejel epailea Guardia Civileko koronel batekin ezkontuta dagoela eta erakunde horren Merezimenduzko Saria jaso duela. Jose Ramon Navarro eta Eloy Velasco epaileek ere aipatu saria jaso zuten. Bestalde, Altsasuko zortzi auzipetuei prozesu justu bat izateko eskubidea urratu zaiela diote, instrukzioan hainbat frogak eta lekuko aurkezte galarazi zitzaizela.

## Sanantondarrei pandemiak urteroko hitzordua aldatu die

Dorraon, Bakaikun, Iturmendin eta Urdiainen ez da ospakizunik izanen, elizkizunak soilik

## SAKANA

Animalien zaintzailea da, baita abereekin zerikusia duen lanbideen babeslea ere. Animaliekin lotura zuten lanbideetan aritzen zirenek elkarrekin sortu zituzten garai batean. Sakanan saildu horren lau kofradia daude gaur egun: Dorraokoa, Bakaikukoa, Iturmendikoa eta Urdiaingoa.

COVID-19 gaitzak lau kofradien urteroko hitzorduari eragin dio. Dorraoko kofradiako priore Anjel Pueio Lizarragak erabaki du ospakizuna bertan behera uztea. Berak jarraituko du kofradiako ardurarekin beste urte batez. Bakaikun, berriz, heldu den larunbatean elkartuko dira, baina ez da ohiko bazkaririk izanen. Iturmendiko sanantondarrak domekan, 10:30ean, elizan elkartuko dira, hildako kofradeen aldeko meza izanen baita. Baina gainontzeko egitekoak bertan



Iturmendiko sanantondarrak. ARTXIBOA

behera gelditu dira. Azkenik, Urdiaingo San Anton kofradiako kideak larunbat eguerdian hildako kofradeen aldeko meza egingen dute. Iñigo Etxeberria eta Josu Lanasek kofradiako buruzagi karguari beste urte batez helduko diote.

## Lakuntzako Sansaastinak ez dira ospatuko

San Saastin egunean kontzertu berezia izanen da kultur etxean eta kintoei Alkate Dantza dantzatuko dute

## LAKUNTZA

San Saastin da Lakuntzako patroia eta Sansaastinak dira Lakuntzako berezko festak. Aurten, tamalez, ezingo dira ospatu, COVID-19 birusak sortutako pandemia dela eta.

Festak ez, baina ilbeltzaren 20an, asteazkenean, San Saastin egun handian, bi ekitaldi izanen dira. Batetik, kultur etxeak Et Incarnatus orkestraren, Xabier Leturia, Kristina eta Leireren eta Mikel Urdangarinen kontzertua hartuko du 11:45ean eta 13:15ean. Sarrerak Ogiberrin salgai daude. Bestetik, kintoei plazan Alkate Dantza dantzatzeko ohiturari eustea erabaki dutela azaldu du udalak, maskarak jantzita eta beharrezko osasun neurriak hartuta. Ekitaldia jarraituzera gonbidatu du udalak, segurtasun distantziak hartuta eta musukoa jantzita.



Aurten ez da danborradarik izanen.

Beraz, lakuntzarrek aurten etxean dastatuko beharko dituzte egun hauetarako propio prestatzen diren piperopilak, eta bertan behera gelditu dira Lakuntzako Pertza elkarrekin antolatutako danborrada eta ermitaiko erromeria, besteak beste.

# Egoerari buelta ematera derrigortuta

**PILOTA** Ezkurdia-Ladis Galarzak eta Jaka-Martijak Binakakoan ez dute garaipenik lortu. Igandean elkarren kontra ariko dira eta jokoan dagoen puntua lortzea ezinbestekoa da biendako. Elezkano II.ak eta Zabaletak, aldiz, lidergoa dute jokoan

## Maider Betelu Ganboa SAKANA

Binakako Txapelketako hasierako ligaxkako 2 jardunaldi jokatu dira eta oraindik 12 jardunaldi daude aurretik, baina zuzendu beharreko zenbait gauza daudela erakutsi du orain arteko bideak. Ezkurdia-Ladis Galarzak eta Jaka-Martijak ez dute garaipenik lortu, baina nahiz eta bi bikoteek punturik ez izan, euren arteko egoera oso desberdina da.

Jakak eta Martijak orain arte jokaturako bi partidak galdu dituzte. Ilbeltzaren Iean Altunak eta Mariezkurrenak 11 tantotan utzi zituzten eta astelehenean, Zallan, Elezkano II.aren eta Zabaletaren kontra 19 eta 22 galdu zuten. Hala ere bikote sendoa osatzen dute Jakak eta Martijak, ongi jokatzen ari dira eta egoerari buelta emango diotela espero da, jokaturako partidetan ongi aritu baitziren, sendo.

## Ezkurdiaren eta Ladis Galarzaren testa

Ezkurdiaren eta Ladis Galarzaren kasua bestelakoa da, momentuz behintzat. 2019 urteko Binakakoan bikotea osatu zuten eta txapelketa ez zuen ongi hasi. Ezkurdiak bikoteari tira egin behar izan zion eta Galarzak lasaitzea eta txapelketan sartzea lortu zuen, eta itxuran despedi-



Atzo materiala aukeratu zuten Galarzak, Ezkurdiak, Jakak eta Martijak. ASPE

tu zuten hasierako ligaxka, 6. postuan, finalerdirako puntu batera. Aurten ere ez dira ongi hasi. Lehen jardunaldia ahazteko modukoa da, Elezkano II.ak eta Zabaletak 3 tantotan utzi zituztelako. Bigarren jardunaldirako Irunen gertatutakoa ahaztu eta partida hobea egitea nahi zuten, baina Altuna III.aren eta Mariezkurrenaren kontra 11 eta 22 galdu zuten larunbatean Bergaran. Okerrena ez da galtzea, galtzeko modua baizik. Izan ere, Ezkurdiak eta Ladis Galarzak ez dute lortu bikotea egitea. Elkar

ulertzea falta zaie. Ezkurdiak tiratzen du bikotetik. Ladis Galarzari ez zaio konfiantzarekin ikusten, zalantzi dabil, atzera doan pilotakada Baraibarkoak nola erantzungo duen ez dago jakiterik. Horrek atzera laguntzera jaistera behartzen du Ezkurdia, airez sartzera eta arrisku gehiago hartzera. Hala ikusi zen larunbatean Bergaran. Ezkurdia hasieratik jabetu zen berak egin beharko zuela dena: tantoak bukatu, atzelariari lagundu atzerago jarriz, erretoan airean sartu -13 alditan sartu

zen-, defentsako lana... une batzuetan bazirudien bat biren kontra ari zirela. Arbizuarra ez dago txapelketan eroso eta hori argi ikusten da.

Beraz, gelditu, hausnartu, elkarrekin gehiago hitz egin eta zezena adarretatik hartzeko garaia iritsi zaie Ezkurdiari eta Ladis Galarzari. Txapelketan aurrera egin nahi badute, elkar ulertzea kondentatuta daude. Larunbatean argi mintzatu zen arbizuarra: "Ni neu ez nago puntu puntuan, eta, gainera, ez gara ari bikotea osatzen. Lehiakorragoak izan behar dugu, eta aurkari askoz ere aukera gutxiago eman". Egoeraren irakurketa orain praktikan jarri beharko dute.

## Ezkurdia-Galarza vs Jaka-Martija, markagailua mustuzera

Egoerari buelta emateko asko dute Ezkurdiak eta Ladis Galarzak, baina 3. jardunaldian arerio gogorak dituzte: punturik gabe dauden Erik Jaka eta Julen Martija. Partida igandean jokatu dute, Astelenan (17:00, ETB1). Material aukeraketa atzo egin zuten eta bi arerioek errespetu handia azaldu zieten elkarri. Katedrak Jaka eta Martija jotzen ditu faborito, baina Ezkurdiak eta Ladis Galarzak burua altatu nahi dute eta lehia estua espero da. Ziurrenik Galarza zigortzea izango da Jakaren eta Martijaren estrategia, eta horretarako prestatu beharko dute Arbizukoak eta Baraibarkoak.

## Elezkanok eta Zabaletak lidergoa dute jokoan

Bestelako egoeran daude Elezkano eta Zabaleta. Bikote sendoa osatzen dute eta Jose Javier Zabaleta ikusgarri dabil. Lehen

jardunaldian 3 tantotan utzi zituzten Ezkurdia eta Galarza, eta astelehenean Jakaren eta Martijaren kontra garaipen garrantzitsua lortu zuten (19 eta 22). Jaka eta Martija aurreratu ziren, oso ongi jokatuta, 7 eta 1, baina Zabaletak aginte makila hartu, partidaren erritmoa markatzen hasi eta markagailua irauli zuten berak eta Elezkanok. Martijak ongi jokatu zuen, baina gutxika Zabaleta gailendu zitzaion atzeko koadroetan. Sasoi betean dago Zabaleta, egungo atzelari onenetakoa da eta berme bikaina Danel Elezkanorendako. Saillapenean lider dira Altuna-Mariezkurrenarekin batera, biak bina punturik eta tanto average berberekin (+22).

Astelehenean, hain zuzen ere, Altuna eta Mariezkurrena izanen dituzte aurkari Azpeitian (22:30, ETB1). Lider diren bi bikote arteko partida izango da, orain arteko bi biko onenen arteko partida, oilarren artekoa. Beraz, puntu bat baino gehiago dago jokoan, lidergoa hartzea, eta ikusmina handia da.

Gainontzeko bi jardunaldie dagokienez, min hartuta dagoen Artola ordezkaturako duen Oinatz Bengoetxeak eta Aranguren Peñak II.a eta Albisu izango dituzte aurkari (ostiralean, 22:15ean, Amorebieta-Etxanon. ETB1) eta Olaizola II.ak eta Rezustak Urrutikoetxearen eta Imazen kontra jokatu dute (larunbatean, 17:15ean, Bizkaian. ETB1).

## ZABALETA IKUSGARRI DABIL; ALDIZ, EZKURDIAK ETA MARTIJAK EZ DUTE MARKAGAILUA MUSTU

# Berrogeialdia gaindituta, Osasuna Magna lanera

**ARETO FUTBOLA** Industrias Santa Colomaren kontrako partida Anaitasunak hartuko du, igandean (17:00, Gol TV)

Osasuna Magna bueltan da berrogeialdian egon eta gero. Jakina denez, taldeko jokalariek batek ilbeltzaren 3an positibo eman zuten. Taldekide guztiek PCR probak egin zituzten, negatibo izan zirenak, baina positibo izan

zuen jokalariekin harreman zuzena izan zuten, klubak berak ilbeltzaren 4an Aspil-Jumpers Ribera de Navarrarekin jokatzea zuten derbia atzeratzea eskatu zuten. Autobusean Tuterarako bidean zihoazela jaso zuten

epailearen erabakia, partida atzeratzea baimentzen zuena. Ordutik konfinatuta egon dira.

Gertatutakoarekin "harrituta" geratu zirela nabarmendu du Xotako presidente Tatono Arregik. "Guk berehala protokoloa aplikatu genuen, eta gertatutako esperpentoa, epailearen erantzuna partidara bidean autobusean geundela jasotzea... harritzekoa izan zen. Arauak zorrotz jarraitu ditugu, konfinamendu zorrotza egin dugu, eta iganderrako prest gaude" azaldu du.



Berdeek beste babesle bat dute. XOTA

Osasuna Magnak igandean Industrias Santa Coloma hartuko du Anaitasunak, 17:00etan (Gol TV). Talde berdeak 17 puntu ditu, partida bat gutxiagorekin, eta Santa Colomak 16 puntu. Arerio zuzenak direnez, partida lehiatua espero da.

## Babesle berria

Talde berdeak babesle berria du, egitura metalikoak egiten dituen Montajes Oslo, Aragoiko enpresa. Urte bateko kontratua sinatu dute bi aldeek, luzatu daitekeena.





Urdax Magunazelaia eta Jon Irañeta Binakako Urrezko Harri Jasotzaileen Txapelketako txapelekin, Asteasun. IBON ERRAZU

# Binakako txapela jantzi du Irañetak

**HARRI JASOTZEA** Binakako Urrezko Harri Jasotzaileen txapela lortu zuten Jon Irañetak eta Urdax Magunazelaiak 84 jasoalditan 9.946 kilo jaso eta gero. Igandean Binakako Urrezko Txapelketa-Zortzi Arroako Hiru Harri Txapelketari ekingo dio egitarretarrak

**Maidar Betelu Ganboa** EGIARRETA Abenduaren 31n Egur Sportek antolatutako Binakako Urrezko Harri Jasotzaileen Txapelketako finala jokatu zen, Asteasun. Hiru bikote aritu ziren finalean: Jon Unanue "Goenatxo III.a" eta Hodei Iruretagoiena "Izeta IV.a", Jokin Eizmendi eta Gorka Etxeberria, eta Jon Irañeta egitarretarra eta Urdax Magunazelaia abadiñarra. Hiru minutuko txandetan, 100 kiloko zilindroarekin, 100 kiloko bolarekin, 138 kiloko kubikoarekin eta 175 kiloko laukizuzenarekin aritu behar izan zuten. Irañetak eta Urdaxek sekulako lana egin zuten eta me-zitak txapela jantzi zuten, 84 jasoalditan guztira 9.946 kilo jaso eta gero.

Jon Irañetak 100 kiloko zilindroa eta 100 kiloko bola aukeratu zituen. Zilindroari 31 jasoaldi egin zizkion 3 minututan, eta bolari

24 jasoaldi 3 minututan. Urdaxek 175 kiloko laukizuzenari 12 jasoaldi egin zizkion 3 minututan eta 138 kiloko kubikoari 17 jasoaldi. Bien lana batuta, 9.946 kilo jaso zituzten 84 jasoalditan. Oso gertu izan zituzten Jokin Eizmendi eta Gorka Etxeberria. Horren isla, azken harri jasotzaileak lana bukatu arte ezin izan zen jakin zein bikok irabazi zuen. Eizmendik eta Etxeberriak 2 jasoaldi gutxiago egin zituzten, 82, guztira 9.821 kilo jasota, 125 gutxiago. Hirugarrenak Jon Unanue "Goenatxo III.a" eta Hodei Iruretagoiena "Izeta

**"EMOZIO HANDIKO FINALA IZAN ZEN, AZKEN UNERA ARTE ERABAKI EZ ZENA"**  
JON IRAÑETA

IV.a" izan ziren, 82 altxalditan 9.482 kilo jasota.

**Igandean Binakako Txapelketari ekingo dio Irañetak**

Binakako Urrezko Harri Jasotzaileen Txapelketa irabazi eta gero, erronka berria du 23 urteko harri jasotzaile egitarretarrak, dagoeneko martxan dagoen Binakako Urrezko Harri Jasotzaileen Txapelketa-Zortzi Arroako Hiru Harri Txapelketa. Bertan 100 kiloko hiru harri erabiliko dituzte, kubikoa, bola eta laukizuzena, 2 minutuko txandatan. Guztira 10 harri jasotzaile lehiatuko dira. Dagoeneko 2 jardunaldi jokatu dira eta igandean, 12:00etan, Aizarnan, Jon Irañeta sartuko da lehian, Jagoba Otaegi eta Mikel Lopetegi "Urta"-rekin batera. EITB1-ek igandean 16:00etan eskainiko du saioa.

## "Banakakoan 10 harri jasotzaile ariko gara"

JON IRAÑETA HARRI JASOTZAILA

**Bi hilabetetan bi txapela lortu dituzu. Azaroaren 7an Nafarroako Harri Jasotze Txapelketa irabazi zenuen Irurtzunen, eta abenduaren 31n Binakako Urrezko Harri Jasotzaileen Txapelketa, Urdax Magunazelaiarekin. Zorionak!**

Eskerrik asko! Finalean zerbaki politak atera ziren eta urteari amaiera ona emateko oso polita izan zen Urdaxekin batera Binakakoa irabaztea. Gainera, final oso estua eta polita izan zen, azken harri jasotzaileak bere lana bukatu arte ez baitzen jakin nork irabazi zuen.

**Finalean lau harrirekin aritu zineten. Zuk 100 kiloko zilindroa eta 100 kiloko bola aukeratu zenituen eta Urdaxek 175eko laukizuzena eta 138 kiloko kuboa. Hobeto moldatzen al zara pisu txikiagoekin?**

Bai. Harri handiak jasotzen ditut, baina asko sufritzen dut. Nahiago dut harri txikiarekin aritzea.

**100 kiloko zilindroari 31 jasoaldi egin zenizkion 3 minututan eta 100 kiloko bolari 24 jasoaldi denbora berean. Zerbaki horiek espero zenituen?**

Zilindroarekin nahiko gaizki ikusi nuen nire burua; ez nuen espero horrenbeste sufrituko nuenik. Bolarekin lan ona egin nuen eta egingakoarekin pozik nago.

**Alde txikia atera zenieten Eizmendiri eta Etxeberriari, 125 kilokoa.**

Bai, harri batera edo bi harri txiketara geratu ziren. Emozio handiko finala izan zen, pena publikorik gabe jokatu izana. Gero lagunekin pote batzuk hartu nituen eta familiarekin ospatu nuen etxean, lasai.

**Sakanako Harri Jasotze Eskolan entrenatzaile duzun Mikel Lasartek esan zuen finalean "lan aipagarria" egin zenuela.**

Binakako txapelketa bat biren arteko lana da, baina oso zerbaki politak atera nituen eta pozik nago. Ea igandean ere horrela ibiltzen naizen. Gogotsu nago Banakakoarekin hasteko.

**Hain zuzen ere, martxan dago jada Binakako Urrezko Harri Jasotzaileen Txapelketa-Zortzi Arroako Hiru Harri Txapelketa. Zergatik izen hori?**

Harriak arroaka edo arrobaka sailkatzen dira. Arroa edo arroba bakoitza 12 kilo eta erdi izanen dira. Hortaz, zortzitako arroa 100 kilo inguru izanen dira. Txapelketa honetan 100 kiloko harririk lehiatuko garen ez, izen hori du. Harri jasotzaile gehienek arrobetan hitz egiten dute: zortzi arroako harria, bederatzikoa, hamarrekoa...

**Hiru harrirekin lehiatuko zarete: 100 kiloko bola, 100 kiloko kubikoa eta 100 kiloko kopa. Harri bakoitzarekin bi minutuko saioa egin beharko duzue. Txapelketa ongi datorkizu, ez?**

Harri txikiak dira, eta alde horretatik bai. Guztira 10 harri jasotzaile lehiatuko gara, kopuru polita. Tartean harri jasotzaile oso onak daude, izen handikoak. Nire marka hobetzea, hori da dudan helburua. Horrekin pozik nengoke. Une onean dago harri jasotzea, eta gure kirolak hor jarraitzea eta osasun ona izateak poztasuna ematen du.

**Txapelketako 2 jardunaldi jokatu dira eta zu igandean sartuko zara lehian, 3. jardunaldian, Aizarnan. Mikel Lopetegi "Urta" eta Jagoba Otaegi izango dituzu aurkari. Nola sentitzen zara igandera begira?**

Ongi sentitzen naiz, sasoiari, Mikel Lasarterekin lan egiten. Aste honetan suabeago, igandera begira, baina eskolan beti izerditzen dugu.

**Zure burua Binakako finalean ikusten duzue?**

Hori ezin da jakin. Akaso oso ongi eta sasoiari ikusten zara, baina plazan harri bat gaizki botatzen baduzu edo arnasa gaizki hartzen baduzu dena pikutara joan daiteke. Lana bukatu arte ezin da jakin.



IBON ERRAZU

**Maidar Betelu Ganboa** SAKANA

Aurreko astean Espainiako Ziklo-kros Txapelketa jokatu zen Torrelavegan (Kantabria), eta ordezkari sakandarrak lan bikaina egin zuen.

Igor Arrieta uhartearrak ziklo-krosarekin mustu du afizionatuen 23 urtez azpiko kategorian. Lehenengoz Lizarte taldearekin aritu zen Arrieta, non eta Espainiako Ziklo-kros Txapelketa. Espainiako 23 urtez azpiko Ziklo-kros Txapelketa 5. postuan sailkatu zen uhartearra, lasterketa oso ona egin ondoren. Nabarmenezkoa da Igor Arrieta azken lerroan atera zela eta sekulako erremontada egin zuela aurreko postuetara heltzeko. Ivan Feijoo (Nesta-Skoda) izan zen Espainiako txapelduna (57:30), eta Igor 5. sartu zen, 2:57ra. "Egindakoarekin ongi sentitzen naiz. Kategoriaz berria mustutzen nuen, baina gutxi gorabehera aurreikusituen nituen postuen artean ibili naiz. Ibilbidea eta zirkuitua lohiez josia zegoen, baina hanketatik ongi ibili naiz eta pozik nago egindako lasterketarekin" azaldu zuen uhartearrak bukaeran.

Sakana Group-Aralar taldeko Aimar Tadeo lakuntzarrak Nafarroako selekzioarekin hartu zuen parte Espainiako Txapelketa. Lakuntzarrak kategoriaz mustutzen du, kadete mailatik junior mailara egin baitu salto, eta maila berrian ongi ibili zen. Junior mailako Espainiako Ziklo-kros Txapelketa oso estua izan zen eta Galiziako Selektzioko Miguel Rodriguez gailendu zen (43:54). Aimar Tadeo 15. postuan sartu zen, 4:56ra, eta Nafarroako selekzioarekin lehena izan zen. Burunda klubeko Quesos Albeniz taldeko Mikel Unzilla etxarriarra 55. postuan sailkatu zen.

#### **Kadeteetan Mikel Regilek zilarrezko domina**

Espainiako Ziklo-kros Txapelketa podiumera igo zen sakandar bakarra Mikel Regil izan zen. Burunda Txirrindularitza Taldeko txirrindularia Nafarroako selekzioarekin aritu zen kadete mailako txapelketa eta lehia oso bizia izan zuen Kataluniako selekzioarekin Carlos Gamezekin. Azkenean, Gamezek hartu zuen aurrea eta bera izan zen txapelduna (36:25), eta Mikel Regil 18. segundora sartu zen (36:43). Pozik dago Regil, eta ez da gutxiagorako, meritu handiz zilarra ekarri baitu Torrelavegatik.

# "Espainiako Txapelketa aurrean egotea ez nuen espero"

**MIKEL REGIL** BURUNDAKO QUESOS ALBENIZ TALDEKO TXIRRINDULARIA

**ZIKLO-KROSA** Espainiako Ziklo-kros Txapelketa kadeteen mailan zilarrezko domina lortu du altsasuarrak. Arrieta 5. sailkatu zen, Tadeo 15. eta Unzilla 55.



Mikel Regil primeran ibili zen Torrelavegako zirkuitu lokaztuan. NOEMI GONZALEZ

**Kataluniako Carlos Gamezekin borroka polita izan zenuen eta, azkenean, bigarren sartu zinen, 18 segundora. Espainiako Txapelketa horren aurrean sailkatzea espero zenuen?**

Egia esan, ez nuen espero, baina irteera ona egin nuen, gutxika postuetan gora egiten joan nintzen aurrera iritsi arte. Azkenean erori egin nintzen eta ez nuen Carlos Gomez txapelduna harapatu, eta bigarren sailkatu nintzen. Ongi, egindakoarekin pozik nago.

**Nola zegoen ibilbidea eta zirkuitua? Lohi asko egongo zen...**

Ibilbidea lokaztuta zegoen, baina lohian gustura ibiltzen gara. Eguraldia ona zen, ez zuen aparteko hotzik egiten. Ongi.

**Kadeteen mailako onenak lehiatu zineten. Maila handiko txirrindulariak izango zenituen arerio, ezta?**

Bai, maila handikoak ziren. Aurtan Espainiar Estatutik barna ibili gara lasterketetan, eta maila handia zen. Batetik lasai nengo, baina aldi berean urduri. Tarteka ez nekien non nembilen ere, baina ni nirera aritu nintzen, lasterketa ongi atera zen, eta pozik nago.

**"IRTEERA ONA EGIN NUEN ETA GUTXIKA POSTUETAN GORA EGIN ETA AURRERA IRITSI NINTZEN"**

**Espainiako Ziklo-kros txapelketa beste hainbat sakandar ere aritu ziren. Aimar Tadeo jubeniletan 15. sailkatu zen, Mikel Unzilla 55. eta Igor Arrieta, afizionatuetan, bosgarren. Orokorrean nola ikusi zenituen sakandarrak?**

Ongi, nahiko ongi ibili ziren.

**Hala ere, zu izan zinen podiumera igo zen bakarra.**

Bai, baina horrek ez du horrenbeste axola. Podiumera igotzeak ilusioa ematen du, baina beste lasterketa bat da, besterik gabe. Egunerokoan lasterketetan parte hartzea, gustura aritzea, gozatzea... hori da gustuko dudana.

**Aurretik beste dominaren bat ba al zenuen?**

Torrelavegako domina oso polita da. Guztira bi domina ditut. Beste behin, errepidean, haurren mailan txapeldunordea izan nintzen ginkanan.

**Ziklo-krosean aurretik beste podiumik lortu al duzu?**

Aurtan bi aldiz igo naiz podiumera. Madrilgo Kopan parte hartu nuen. Hiru proba ziren; lehenengoan hirugarren sailkatu nintzen, bigarrenetan bederatzigarren eta azkenekoan irabazi egin nuen. Emaiza guztiak kontuan hartuz Madrilgo Kopan bigarren izan nintzen. Beraz, podiumera igo nintzen. Aurtengo ziklo-kros denboraldiko balorazioa oso positiboa da. Torrelavegako ez da izan Nafarroako selekzioarekin aritu nintzen lehendabiziko aldia. Hirutan deitu naute, ziklo-krosean bitan, 2021eko Espainiako Txapelketa eta 2020ko Espainiako Txapelketa, eta errepiderako beste behin.

**Pandemiagatik aurtan proba gutxiago jokatu dira?**

Bai, askoz ere gutxiago. Hemen, Euskal Herrian, hamabosten bat ziren jokatzekoak, baina ez da bat bera ere jokatu. Kanpoan ibili gara. Asteburu honetan Iruñean proba bat zen jokatzekoak, baina uste dut bertan behera geratu dela. Hau litzateke aurtengo ziklo-kros denboraldiko azken lasterketa, baina uste dut ez dela egingo.

**Zer duzu gustukoagoa, errepidea edo ziklo-krosa?**

Oraintxe bertan agian ziklo-krosa dut gustukoago.

**Berehala hasiko da errepideko denboraldia. Dagoeneko Quesos Albenizko kadeteak entrenatzen ariko zarete, ezta?**

Taldeko entrenamenduak hasi dira, baina ni orain arte ziklo-

krosarekin buru belarri ibili naizenez nire kabuz aritu naiz lohian entrenatzen. Aurki hasiko naiz Burundako taldekideekin entrenatzen. Aurten 7-8 txirringulari inguru ibiliko gara kade-te mailan.

**Hastear dagoen denboraldiaren inguruan zer entzuten da? Ohiko lasterketen egutegia mantenduko al da?**

Esan digutena da denboraldia hasiko dela. Jubenilak datorren hilabetean hasiko dira lasterketetan, eta gu beranduago. Oraindik ez digute datarik ziurtatu, baina nik uste dut lasterketak egingo direla.

**Gogotsu zaude errepideko denboraldia hasteko?**

Bai. Bizikleta gustuko dut, izugarri, eta gogotsu nago. Kuadrillan beste bi lagun ditut txirringulari. Iker Agudelorekin entrenatetik nator, eta Joseba Ortigosa ere txirringularia da. Gustura ibiltzen gara.

**Azken urte hauetan bi txirringularitza talde sakandarretako –Burundako Quesos Albeniz eta Sakan Group-Aralar– txirringulariak gailendu dira Nafarroako eta gertuko lasterketetan, eta Nafarroako txirringularitza selekzioa sakan-darrez josia egon da. Aurten Igor Arrieta, Iker Mintegi, Joseba Alberdi... eta beste ez dira talde sakandarretan ariko, mailaz igo direlako. Sakanako bi taldeak goian jarraituko dute hastear dagoen denboraldian?**

Bai. Nik uste dut gure taldeek maila ona izaten jarraituko dutela eta goian egongo direla. Mikel Unzilla oso ongi dabil, Aimar Tadeo ere...

**Baita zu ere.**

Beno... (kar, kar).

**Zorionak eta zorte ona izan dezazula hastear dagoen errepide denboraldian.**

Eskerrik asko!

**"PODIUMAK ILUSIOA EGITEN DU, BAINA BESTE LASTERKETA BAT DA, BESTERIK GABE"**

**"AURTENGO ERREPIDE DENBORALDIAN SAKANAKO TALDEAK GOIAN EGONGO DIRELA USTE DUT"**

## **FUTBOLA** Lagun Arteak kamiseta diseinatzeko lehiaketa deitu du

Lakuntzako Lagun Artea futbol taldearen kamiseta txuria da. Ezkerraldeko goialdean, klubeko armarria darama, bularraren parean babeslearen logotipoa eta orain arte gainontzekoa txurixuria zen. Baina kamiseta berria egiteko diseinu berri baten bila dabil taldea eta horretarako elastiko berria diseinatzeko lehiaketa deitu du.

**Diseinuak aurkezteko epea: ibeltzak 30**

Lehiaketa adin guztietako artistei zuzendua dago. Kamisetaren kolore txuria mantendu behar da, goialdean babeslearen logoa txertatzeko espazioa izan behar du eta gainontzeko eremuan nahi dena diseinatu daiteke, gaia librea baita. Partaide bakoitzak diseinu bakarra aurkeztu ahalko du.

Diseinua sortzeko Rosa Lizaur Estankon eskatu daiteke plantilla (artista bakoitzeko bat). Diseinua entregatzerakoan, gutunazal baten barruan datu pertsonalak idatzi behar dira eta gutunazalean eta diseinuaren plantillako atzealdean ezizen bat, anonimotasuna mantentzeko. Diseinuak aurkezteko epea ilbeltzaren 30ra arte egonen da zabalik, eta proposamen diseinuak entregatzeko ondoko telefonora deitu beharko da: 636 509 741 (Asier).



LIZARTE

## **2020ko juniorra**

**TXIRRINGULARITZA** Sprint Final komunikabide digitalak Igor Arrieta uharterra 2020 urteko txirringulari juniorra izendatu du.

# Dantzalekuk Nafarroako Kros Luzea hartuko du

**ATLETISMOA** XXXIV. Altsasuko Krosa otsailaren 14an jokatu da. Bi lasterketa egonen dira, federatuen mailakoa eta proba herrikoia, eta Nafar Kirol Jolasen jardunaldia. Izena emateak aurki zabalduko dira Nafarroako Atletismo Federazioan eta Dantzalekun

Korrikalariak eta atletak gogor entrenatzen hasteko aitzakia bikaina dute. Dantzaleku Sakan Atletismo Klubak azaldu duenez, otsailaren 14an XXXIV. Altsasuko Krosa jokatu da Dantzalekun, Dantzaleku klubak berak antolatuko duena eta Nafarroako Kros Luzeko Txapelketa izango dena. Pandemiaren gauden honetan, eta azken orduko aldaketarik ezean, Altsasukoa aurten jokatu den lehendabiziko proben artean egongo da.

**Bi lasterketa: federatuak eta herrikoiak**

Bi lasterketa jokatu dira. Batetik korrikalari federatuen lasterketa izanen da, hain zuzen ere Nafarroako Kros Luzeko Txapelketa izanen dena, eta, bestetik, korrikalari herrikoien kros irekia edo opena.

Horretaz gain, Nafar Kirol Jolasen mailako kros jardunaldia ere antolatuko dute, kategoria



Azkeneko Altsasuko Krosoko emakumezkoen proba herrikoia. ARTXIBOIA

txikikoeak eta atletismo eskolako gazteek ere parte hartzeko aukera izan dezaten.

Jakina, Dantzalekun jokatu diren proba guztietan eskatutako osasun neurriak bete eta bermatuko dira. Dantzaleku Sakanak Dantzalekuko pa-

raje ederretan barna korrika egitera animatu ditu korrikalariak. Aurki zabalduko da izena ematea, Dantzaleku Sakan Atletismo Klubean ([www.dantzalekusakana.com](http://www.dantzalekusakana.com)) edo Nafarroako Atletismo Federazioan ([www.fnaf.es](http://www.fnaf.es)).



EITB

## **Baserrian ongi pasatu du**

**KIROLDEGIA** ETB1-eko Baserria saioko lehiakideetako bat da June Kintana. "Kamaren aurrean lotsati samar egon naiz, baina oso ongi pasatu dut. Bizimodu erabat ezberdinak dituzten bi pertsona elkartu eta talde gisa nola lan egiten duten ikustea kuriosoa da" dio bakaikuarrak.



XOTA

## **Selekzioa**

**ARETO FUTBOLA** Espainiako Areto Futboleko 18 urtez azpiko selekzioko kontzentrazioarako deitu dute Ion Cerviño irurtzundarra.

## AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / kultura@guaixe.eus

## OSTIRALA 15

**ALTSASU Gazte agenda: Play Station arratsaldea.**  
17:00etatik aurrera, Intxostiapunta gazte gunean.

**ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ Euskal Presoak Euskal Herrira elkarretaratzeak.**  
20:00etan, plazan.

## LARUNBATA 16

**ALTSASU Gazte agenda: Atzapar Rock taldearen kontzertua.**  
17:00etatik aurrera, Intxostiapunta.

**ALTSASU Oscar Terolen ¡Por comentar! bakarriketa ikuskizun berria.**  
17:30etan eta 19:30etan, Iortia kultur gunean.

**OLAZTI El Drogas dokumentalaren emanaldia.**  
Sarrerak: aurretik 3 euro eta egunean bertan 3,5 euro.  
19:00etan, kultur etxean.

## IGANDEA 17

**LAKUNTZA Mikel Arregi gogoan**

**liburuaren aurkezpena eta argazki proiektioa.**

Mikel Arregi Gogoan herri ekimenak antolatuta.  
12:30ean, kultur etxean.

**ETXARRI ARANATZ Zama doinuz arindu jaialdia: Eñaut Elorrieta, Erramun Martikorena, Zetak, Skabidean, Anita Parker eta Brigade Loko musika taldeak eta Xabier Silveira, Exprai eta Erlantz Esteban.**

Sarrerak: 10 euro.  
18:00etan, online.

**ALTSASU Euskal Presoak Euskal Herrira elkarretaratzea.**  
20:00etan, plazan.

## ASTELEHENA 18

**ALTSASU Pentsio duinen aldeko kontzentrazioa.**  
12:00etan, Zumalakarregi plazan.

## ASTEAZKENA 20

**ALTSASU Euskarazko irakurle taldeak Karmele Jaioren idazlearen Amaren eskuak liburuaren inguruan hitz egingen du.**  
18:00etan, Iortia kultur gunean.

## ZINEMA

## ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO NAGUSIAN

**El verano que vivimos** gaurkotasunezko filmaren emanaldia  
Ostirala 15: 19:00  
Igandea 17: 19:30

**Como perros y gatos: la patrulla unida** familiarreko filmaren emanaldia  
Igandea 17: 17:00

**Perfumes** gaurkotasunezko filmaren emanaldia  
Osteguna 21: 19:00

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO TXIKIAN

**Baby** zineforum filmaren emanaldia  
Igandea 17: 19:30

**Martin Eden** zineforum filmaren emanaldia  
Osteguna 21: 19:00

## OSTEGUNA 21

**OLAZTI Askotariko Sakana.** Aniztasuna erein. **Homoamak-Tras la piel** film laburren emanaldia, **Kattalingune Zerbitzuaren, Hormak Mendialdeko LGTBI+ kolektiboaren aurkezpena eta Naizen elkartereko familien testigantzak.** Elebiz. Gonbidapenak: [berdintasuna@sakana-mank.eus](mailto:berdintasuna@sakana-mank.eus).  
19:00etan, kultur etxean.



UHOIDEAK

**ALTSASU Uharte Zentroaren Uholdeak – Claustrofilia erakusketa.** Abenduaren 18tik urtarrilaren 17ra. Astelehenetik ostiralera 17:30etik 20:00etara, larunbatetan ikuskizuna hasi aurretik eta igandetan 16:00etatik 20:30era. Iortia kultur gunean.



PEOPLE ART FACTORY

**ALTSASU Emakume malgaxearen indarra erakusketa birtuala.** Abenduaren 29tik martxoaren 29ra. People art factory webgunean, <https://labur.eus/EmaMalgaxe>.




ALTSASU GURASOAK

**ALTSASU #AltsasukoakAske Guztien artean egin dugu! Testigantza erakusketa.** Urtarrilaren 19tik otsailaren 7ra. Astelehenetik ostiralera 17:30etik 20:00etara, larunbatetan ikuskizuna hasi aurretik eta igandetan 16:00etatik 20:30era. Iortia kultur gunean.

## EGURALDIA ASTEBURUAN


Ostirala, 15




Larunbata, 16



Igandea, 17



Astelehena, 18



Zorion agurrak jartzeko [zorion@guaixe.eus](mailto:zorion@guaixe.eus)



**DE KOVEN NAVARRA**  
CARPINTERÍA DE P.V.C.

info@dekovenavarra.com  
www.dekovenavarra.com  
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia · ALTSASU  
Telf./Faxa: 948 468 360 · Telefono mugikorra: 690 641 860



ESKELA

**Niko Fuentes Moreno**

Pazientziak ta su geldian  
Egositako bizitza,  
Haritz nobleen upel artean  
Goxatu zenuen hitza,  
Joan ez bazina bezala Niko  
Nabari deu zure oroitzak  
Ardo onduen usain ederra  
Gure artean bailitza.

**Zure kintoak**  
Altsasu



ESKELA

**Teodoro Trevejo Pérez**

2021eko urtarrilaren 1an Etxarri Arantzen hil zen, 76 urte zituela

Batzuetan hitzik ez da behar lagunaren artean,  
besarkada batek dena esan eta adierazten baitu

Joxe Mari, Nerea eta familia  
Besarkada estu bat

**Etxarriko kuadrilla**



ESKERTZA

**Julian Montori Galarreta**

Eskerrikasko zure laguntza eta  
adiskidetasunagatik.

**Jeingenekoa**



OROIGARRIA

**Joxe Mariñelarena**

II. urteurrena  
2019ko Urtarrilak 6an hil zan, Etxarri Arantzen

Beti yonko za gu onduen  
Maitasunez,

**Etxekuek**




OROIGARRIA

**Txomin Leñena Isasti**

'Txomin panadero'  
IV. urteurrena

Erreza izan zen zu maitatzea,  
Ezinezkoa ordea zu ahaztea,  
Beti gure bihotzetan,  
Maite zaitugu.

**Etxekuek**  
Pasaia-Urdiain, 2021eko urtarrilaren 8an



## IRAGARKI SAILKATUAK

## LEHIAKETA

**Liberoamerika argitatearen literatur lehiaketa:** Idalze gazteen lanak argitaratzeko xedearekin sortu dute deialdia. 30 urtetik beherako pertsonak parte har dezakete, edozein delarik haien nazionalitate, jatorria edo bizilekua. Lanek gutxienez 40 eta gehienez 80 orrialde izango dute, eta Times New Roman 12 letra motan tarte bikoitzean idatzita egongo dira. Informazio osoa <https://liberoamerica.com/idalze-gazteen-literatur-lanak-argitaratzeko-deialdia/> web orrian.

## OHARRAK

**Etxarri Aranazko abesbatzen egutegia salgai:** 1942tik 2020ra koralarren ibilbidea erakusten duten 60 argazki ditu. 10 euroren truke Kaxeta, Sabando, Ur-

gain, Gokoetxea belar denda eta Ilaia ilepaimdegian. Ekarpentxi bat koralarren jarduerari laguntzeko.

**Intxostiapuntako ordutegiak:** Gaztegunea astelehenera ostegunera, igande eta jaiegunetan 17:00etatik – 21:00etara, ostiral eta larunbatetan 17:00etatik 22:00etara, ekintza berezietan 17:00etatik 01:00etara. Informazio gunea astelehenera ostiralerara 07:30tik 15:00etara eta asteazkenetan 07:30tik – 12:00etara eta 17:00etatik – 20:00etara. Tfnoak 948 564 785 / 608 617 778, [intxostiapunta@altsasu.net](mailto:intxostiapunta@altsasu.net) + [gazteria@altsasu.net](mailto:gazteria@altsasu.net).

**Altsasuko Txantxari ludoteka:** Izena ematea Ludotekan bertan. Ezeztapenak urriaren 30 arte. Orduetegiak: 2012-2008 (astelehen, asteazken eta

ostiraletan 15:30-16:45 eta astearte eta ostegunetan 18:30-20:00), 2016-2013 (astelehenera ostiralerara 17:00-18:15) eta 2020-2017 (astelehena, asteazken eta ostiraletan 18:30-20:00). Aurten 0-3 urteko saioak doakoak izango dira, baina, familiak izena eman behar dute talde egonkorak sortzeko helbururarekin (laguntzen duen heldua beti pertsona bera izango da). Informazio gehiago 948 467 471 / [ludoteka@altsasu.net](mailto:ludoteka@altsasu.net).

**Arropa biketa:** Etxarri Aranazko boluntario taldeak arropa Elizkorta kaleko bere egoitzan jasotzen du astelehenera, 17:00etatik 18:30era. Egoera onean dagoen arropa eraman behar da, garbi dagoena. Derrigorrezkoa da maskararekin sartzea.

[iragarki@guaixe.eus](http://iragarki@guaixe.eus)

## JAIOTZAK

- **Mattin Tainta Senar**, abenduaren 20an Altsasun
- **Dayana Vaz Dos Santos**, abenduaren 23an Altsasun
- **Naroa Irañeta Alvarez**, abenduaren 25ean Uharteko Arakilen
- **Jare Arraiza Luis**, ilbeltzaren 2an Lakuntzan

## HERIOTZAK

- **Alejandra Igoa Satrustegi**, abenduaren 15ean Lizarragan
- **Maria Teresa Macias Santaolaya**, abenduaren 22an Altsasun
- **Millan Bengoetxea Diaz**, abenduaren 23an Altsasun
- **Antonio Pueyo Bernues**, abenduaren 30ean Irurtzunen
- **Milagros Ocaña Telletxea**, abenduaren 31n Lakuntzan
- **Juan Carlos Romero Garabieta**, ilbeltzaren 1ean Altsasun
- **Jacinto Galarza Goikoetxea**, ilbeltzaren 1ean Urdiainen
- **Teodoro Trevejo Perez**, ilbeltzaren 1ean Olaztin
- **Purificacion Martin Hernandez**, ilbeltzaren 3an Altsasun

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA.  
AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

**IZARRA**  
HEMEN, ZURE ONDOAN  
AQUI, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk  
zeinetan norbait  
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

**ALTSASU** Santa Cruz, 6  
**ETXARRI ARANATZ** Nagusia, 2

948 05 90 90 · [www.izarratanatorio.com](http://www.izarratanatorio.com)



**IRACHE**  
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

948 19 70 70  
@Grupolrache  
Grupolrache  
[www.tanatoriosirache.es](http://www.tanatoriosirache.es)



Ekain Alegre eta Idoia Granizo, eskuinetik bigarren eta hirugarren, IX. Izeta Sariketaren kanporaketan. NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA

## Bertsoarekin birkonektatzen

Idoia Granizo eta Ekain Alegre bertsolari altsasuarrek IX. Mariano Izeta Sariketan parte hartu zuten. Alegre finalera iritsi zen. Urte "arraroaren" ondoren biak pozik zeuden taulara itzultzeagatik

**Erkuden Ruiz Barroso** ALTSASU  
Mariano Izeta Sariketa Nafarroako Bertsozale Elkarteak eta Baztango Udalak antolatzen dute bi

urtetik behin, bertsolariaren omenez. 16 eta 30 urte bitarteko bertsolari nafarrek parte hartzen dute, eta 2020. urtearen amaieran

IX. Edizioa jokatu zuten Iruritan. Egoera berezia dela eta, kanporaketak eta finalak egun berean jokatu ziren. Bi bertsolari gazteek



BAZTERRETIK

IUNE TRECET OBESO ©

### Diseinu grafikorako tresna askeak II

Urte berriarekin batera beti datoz helburuak, eta hauen artean klasiko bat zerbait berria ikastea izaten da. Nire aurtengo helburuen zerrenda honetan diseinu grafikorako programa aske hauek erabiltzen ikastea da.

Lehenengoa, **Scribus**, maketaziorako erabiltzen den programa da. GIMP eta Inkscape irudien lanketara zuzenduta dauden moduan, Scribus testuaren konposizioa zuzenduta dago. Liburuak, liburuxkak, buletinak edo aldizkariak sor daitezke programa honetan. CMYK koloreetako kudeaketa duenez, oso erabilgarria da dokumentuak inprentara bidaltzeko. Eta horretaz gain,

euskaraz aurki dezakegu. Gutxitan erabili izan dut programa hau, baina aurten erabilpena ikasi nahiko nuke, bere baliokide pribatiboa alde batera uzteko. Programa scribus.net webgunean lortu daiteke, edo noski, GNU/Linuxeko programa biltegietan.

**Krita** da erabiltzen ikasi nahi dudana hurrengo. Potentzia handiko programa honek pintura digitala eta ilustrazioa ditu helburu. Kritaren oinarrian, zerotik egindako marrazkiak dira, bai bitmapak bai bektoreak erabiliz. Izugarritzko pintzel liburutegi handia dauka, akuarela, olioak, akrilikoak, arkatzak edo ikatzak adibidez aurki ditzakezu; honek ilustrazioak sortzeko aukera

ederra ematen du. Eskuz egindako marrazkiak digitalean egitea erronka polita da 2021erako. Eredu politik ikusgarri daude krita.org webgunean, bilatzera animatzen zaituztet eta programa ere eskura dago.

Egiteke ditudan gauzen zerrendan beti agertzen dena **Blender** da. Hiru dimentsioko irudiak egiteko eta hauek animatzeko erabiltzen da batez ere. Formak, Inkscapen bezala, bektoreen bitartez egiten dira, baina planoan izan beharrean hiru dimentsiotan modelatu behar dira, bolumenarekin. Hori da zailtasun handiena. Bideo ediziorako erabili izan dut, baina 3D-an irudiak sortzeko denborarik ez dut hartu. Diseinu askean dagoen programa aurreratuenetako bat da, eta maila profesionalen asko erabili izan da 3D-ak egiteko, adibidez, *Spider-Man 2* edo *Marvelen Captain America* pelikulak egiteko. Blender.org webgunean dago eskuragarri.

ordezkatu zuten Sakana: Ekain Alegre eta Idoia Granizo. 2018ko edizioa Saats Karasatorrek irabazi zuen, eta oraingoan Ekain Alegre finalera iritsi da.

"Esperientzia polita izan zen, bertsolari gazteendako egindako sariketa delako eta horrela aukera ematen digute gure adin tarteko jendearekin kantatzeko". Hainbeste denbora pasa ondoren, saio "serio" batean parte hartzea "arraroa" izan dela aitortu du Ekain Alegre. "Kantatu gabe denbora asko generaman, are gehiago publikoaren aurrean". Horrelako egoera batean saioak antolatzea "polita" dela gaineratu du, "ez baitaude aukera asko gaur egun".

Idoia Granizorendako ere "nahiko beharrezkoa" zen sariketa esperientzia bezala: "Urte arraro honen ondoren, gutako asko, eta agian ni bereziki, bertsoarekin birkonektatzeko moduak bila gabiltzala ikusten dut". Izeta Sariketa "bultzadaxo" bat izan zen. Plazak "motibazio iturri" direla gaineratu du bertsolariak. Hala ere, hainbeste denbora oholtzara igo gabe pasa arren ez zela "deseroso" sentitu azaldu du Granizok: "Bertso eskolan bezala kantatunuen, gustura eta eroso. Agian oholtzakideak oso gertukoak nituelako, eta giroa ederra zelako". Nafarroan bertsoaren munduan aritzen direnek elkar ezagutzen dute, eta saio hauetan "etxean" kantatzea bezalako da.

Talde bezala saioaren "balazio positiboa" egin zuten. "Horrelako kanporaketa batean guztiok berriz elkartzeko gogo berezia genuen. Guztion artean giro ederra sortu genuen, animo asko eman genizkion elkarri... polita izan zen". Oro har guztiak eroso egon zirela esan du Granizok, "batzuk urduriago, beste batzuk lasaiago, bertso onak, bertso txarrak joango ziren seguru aski...". Pozik amaitu zuten. Sariketetan "giro oso polita" sortzen dela esan du Alegre, "Egoerak behartuta, egunean bertan bi kanporaketak eta finala jokatu ziren, eta altsasuarrek bigarrenen aritu ziren. "Aurrekoa bizitzeko aukera izan genuen eta horrek giroa berotzen lagundu zuen". Bertso kideak nondik zihoazen ikusten zuten, eta prestatzeko aukera ere izan zuten. Elkarrekin aritzeak "gure bertsogintzan sostengu handia" direla esan du Granizok. "Ariketa bat elkarrekin kantatzea ere egokitu zitzaigun, eta Ekain fi-

nalera pasa izana niretako sekulako eztanda izan zen".

Alegrek ez zuen espero finaleira iristea. "Hainbeste denbora jendaurrean kantatu gabe egon ondoren, ez nekien nola joango zen saioa, eta beldur pixka bat ere banuen". Ariketa gutxi izan zirenez "edonor" pasa zitekeela azaldu du, "eta zortea izan nuen ongi moldatu nintzelako". Gora-beherak izan zituela aitortu du, "presioak onerako edo batez ere txarrerako eragin dezake, eta zaila izaten da lasai egotea". Saioetan, beraz, presioa kentzea garrantzitsua dela azaldu du.

#### Sariketa berezia

Saioak "hotzagoak" direla esan du Granizok; publikoak segurtasun tartea mantendu behar duenez ez daude elkarrekin, eta maskara jantzi behar dutenez, "zaila da" bertsoaren feedbacka jasotzea. "Ez dakizu bertsoak grazia egin dien, zuk uste bezain ona izan den eta abar. Alderdi hori galtzen da". Hala ere, bertsolarien artean egoera bereziak ez duela eragin handiagorik izan esan du Alegre. "Antolakuntza aldetik sekulako esfortzua izan da, eta eskertzekoa da elkarrearen ahalegina".

Egoera berezia bazen ere, oholtzara igotzearen eta bertsolari gazteak berriz ikusteko gogo handiagoa izan zen. "Aspaldian izaten ziren moduko egun bat espero nuen, bertsolariak batu, elkarrekin egon, bertsoak botatu, ondo pasatu, eta bertsoarekin berriz konektatzea. Zalantzarik gabe bete zen".

#### Bertso eskolatik oholtzara

Bertso eskolarekin aurrera jarraitzen saiatu dira eta "nolabaiteko errutina" sortzea lortu dutela azaldu du Granizok. Baina biak bakarrik daudenez "monotonia" akats nagusi dutela aitortu du: "Beti elkarrekin kantatzen dugu, badakizkigu bakoitzaren indarguneak eta ahulguneak...". Horrek bere alde onak eta txarrak ditu: "Izetan elkarrekin kantatzea egokitu zitzaigunean, bagenekien nola bideratuko genuen ofizioa". Baina kontrari ez daude jende desberdinekin kantatzera ohituta. Astero elkartzen dira eta sariketatarako ariketak prestatzen dituzte, "egoera dela eta bertso eskolak kili-kolo daudela ematen du, eta astero biltzea ez da gutxi". Bertsoarekin ez mozte da kontua.



Xabi Etxaniz Ulazia eta Monika Arratibel Goñi 'Laino txiki, egizu negar poliki' liburuaren egileak. UTZITAKOIA

# "Heldu askori ongi etorriko litzaioke ipuin hau irakurtzea"

**MONIKA ARRATIBEL GOÑI IDAZLEA**

Ikasleei kontatzeko sortu zuten 'Laino txiki, egizu negar poliki' ipuina. Euskal Herria zeharkatu ondoren, Laino txiki liburu bihurtu zen

Etxarrin bizi den Monika Arratibel Goñi ataundarrak eta Xabi Etxaniz Ulaziak *Laino txiki, egizu negar poliki* liburu Durangoko Azokan aurkeztu zuten. Konfinamendu garaian sortutako liburu bat da, eta ondoren Erein argitaletxeak argitaratze-ko aukera eman zien.

**Nola bururatu zitzaizuen ipuina?**

Konfinamendu garaian sortutako sormen lan bat da. Xabi eta bion artean egin genuen. Profesioz irakasleak gara, eta konfinamenduan telelanean aritu

ginenez, gure tresnak bideoak, Youtube eta abar ziren. Kartutxo ia gehienak gastatuta geneuzkanean, Xabiri Laino txikia bururatu zitzaion.

**Beraz, hezkuntza tresna bezala sortu zen?**

Esan daiteke baietz. Xabik marrazkiak sortu zituen eta forma hartu zuenean Youtubera igotzea proposatu nion. Ahotsa jarri nion eta nire ikasleei bidali nien. Eskola guztira zabaldu zen. Gero lagunei eta familiari bidali nien. Elizondon hasi eta Euskal Herri

guztian bidaiatzen egon zen. Egia esan, konfinamendu garaia oso egokia izan zen, garai horretan etxe askotan bideoak, ipuinak, jolasak eta abar ikusten zirelako. **Nola pasatu zen bideo izatetik liburu bat izatera?**

Youtubera igo genuenean oso polita zela esan, eta ea non erosi zezaketen galdetzen ziguten. Publikatu behar genuela esaten hasi ziren. Nik ez neukan papelean inprimatuta ere. Ez geneukan ideiarik zer egin behar zen liburu bat publikatzeko, eta

lagun batek idazle baten kontaktua eman zidan eta berak argitaletxe batzuen. Ereini proiektua asko gustatu zitzaion eta papelean egiteko aukera eman zigun.

**Zer kontatzen du?**

Laino batek ez daki negar egiten eta lagunak, arduratuta, negar egiten lagundu nahi diote, bada, kitelako zabor edo tristura guztia barruan gordetzen badugu, kalte besterik ez digula egiten. Gehiago ezin dut kontatu, baina beste lagunak baino handiagoa izan nahi du lainoak eta umiltasunaren balorea, lagunaren behar hori, lagunaren laguntasuna izatea... balore horiek lantzen dira.

**Egoera honetan, balore horiek garrantzitsuagoak bihurtu dira?**

Xabik "Bazen behin negar egiten ikasi ez zuen laino bat..." bidali zidanean, bukaera oso garbi gelditu zitzaidan: negar egiten ikasi behar zuen. Nigan pentsatu nuen, eta zerk ematen dit negargurea? Nik ez diot nire bizitzari zentzua bilatzen lagunik gabe. Lagunei horrelako zerbait zor niela pentsatu nuen. Lagunen behar horretatik sortutakoa da. **Irudiak nolakoak dira?**

Xabik digitalki egin ditu; akua-rela estiloa. Zoragarriak dira. Liburu ez da bakarrik hitza, marrazkiek egiten dute liburu eta ederki islatu du. Mendi batzuk agertzen dira, eta nik aldatzeko esan nion gauza bakarra Beriain jartzea izan zen.

**Zein adin tarterako bideratuta dago?**

Nik beti esaten dut haur literatura edozein adinetarako dela, nahiz eta aurretik haur hitz izan. Zoritxarrez, jende asko dago Laino txiki bezala besteak baino handiagoak izan nahi dutenak, besteak zapaldu nahian. Heldu askori ere ongi etorriko litzaieke liburu hau irakurtzea. Adin tarterik ez dut jartzen. Balore horiek helduei ere ongi datozkigu. Baina hiru urtetik zazpi urtera bideratuta dago. Ahozkotasunagatik ez balitz galtzen ari diren esamolde edo esaera zaharrak erabili ditugu ere. Ni saiatzen naiz eskolatik ezagutza hori ematen, eta ipuinean pare bat daude. Gainera, errepikapen teknika erabili dugu. Esaldi bat askotan errepikatzen da.

**Aurretik idazten zenuen?**

Nik betidanik Ataungo Jentilbaratza kultur elkartearen ibili izan naizeuskal mitologiaren istorioak lantzen eta kontatzen. Joxe Miel Barandiaranen, Joxe Arratibelen

eta galdutako istorio horiek antzetzten eta ipuinak kontatzen, baina gure sormenetik sortutako ezer ez nuen kontatu. Oso berezia izaten ari da.

**Zein desberdintasun ikusi dituzu besteen ipuinak kontatzeatik zurea kontatzera?**

Besteen ipuinak kontatzerakoan, aurretik hamar bat aldiz irakurtzen ditut. Oso landuta eramaten ditut. Nire ipuinarekin, urduri samar joan nintzen klaseko lehen egunera. Liburu eskuetan izan aurretik ere kontatu nuen, eta arazorik gabe. Baina liburu eskuan izan dudanean, errespetu pixka bat eman dit.

**Durangoko Azoka berezi batean aurkeztu zenuen.**

Esan daiteke nire ametsetako bat bete dudala. Bizi guztian ezagutu dut Durangoko Azoka eta beti joan izan naiz. Sortzaile bezala joatea izugarria izan da. Pena da egoeragatik mugak itxita zeudela eta familia eta lagunak ez izan zirela joan. Ondoren, Ataunen beste aurkezpen bat egin genuen eta oso berezia izan zen herrian izan zelako.

**Ba al dituzue ipuin gehiago buruan? Bigarren zati bat agian?**

Askok amesten dut, eta lo baino esna amesten dut. Laino txiki honi mila modu bilatzea gustatuko litzaidake. Alde batetik, materiala sortzearekin amesten dut: argi mahai batean itzalen bidez kontatzea, paperetik atera eta txotxongilo moduan ipuina kontatzea... Eskolan egunerokotasunean erabili daitekeen materialak sortu. Bestetik, jendeak esaten dit bigarren parte bat behar duela. Laino txikiaren itzulera. Egia esan, ez diot buelta gehiegi eman. Beste sormen lan batzuk baditugu buruan; beste pertsonaia batzuk. Baina beste lan bat badugu, irakasleak gara, eta bizitza soziala orain murriztuta bada ere, asko gustatzen zaigu. Denerako denbora izatea zaila da. Antolatuko gara egunen batean.

**Beste konfinamendu bat beharko duzue, beraz.**

Ez, mesedez. Beste konfinamendurik ez. Baina egunerokotasunean ez da erraza tarte bat hartzea. Tartetxo bat beti hartzen dut ideiak apuntatzeko. Koaderno bat beti irekita daukat eta hor apuntatzen joaten naiz. Baina koadernoko letrak eta koloreak lotu, jantzi eta orraztu behar dira. Horretarako denbora hartu behar da.

# "'Altsasu' nire bizitzako esperientzia izan da"

Aitor Lizarraga Bergara altsasuarrak ikus-entzunezko proiektuen errealizazioko goi mailako ikasketak bukatu berri ditu, eta 'Altsasu' telesailean "elektrikarien" edo argiztapen taldean lan egin du. Esperientziak atea ireki dizkiola esan du

**Erkuden Ruiz Barroso** ALTSASU

## 1 Nola iritsi zinen 'Altsasu' telesailean lan egitera?

Amak esan zidan ekoiztetxe bat Otai ostatura etorriko zela grabatzera. Irudi eta soinu ikasketak bukatu berri nituen. Produktoreari mezu bat bidali nion nire burua eskainiz. Produktzio zuzendariak deitu zidan eta ea sartzea interesatzen zitzaidan esan zidan. Baietz esan nion. Denetarik ikasi dugula esan nion, baina ez dudala inoiz lan egin. Elektrikarien taldean sartu ninduen, eta, egia esan, oso pozik. Bitxia izan da.

## 2 Zein zen zehazki zure lana?

Elektriko taldea deitzen diote, eta jendeak pentsatzen du elektrizistaren antzekoa dela, baina ez. Argiztapenarekin lotutako gauzak egiten ditugu. Grabatzen dugunean fokuak eta horrelako gauzak kontrolatzen ditugu. Kamerak behar



Aitor Lizarraga Bergara 'Altsasu' telesaileko argiztapen taldean lan egin du. UTZITAKOIA

duena argitzean datza. Saiatzengara eszena normal bateko argia lortzen.

## 3 Zure lehenengo lana izan zen, zer sentitu zenuen?

Halako gogoia nuen, esan niela edozertan lan egingo nuela. Baina hasi nintzenean errespetua nuen; ez nekien laguntzen ari nintzen edo oztopatzen ari nintzen. Tresna eta objektu pila bat daude, bakoitzak izen bat dauka, eta langile bakoitzak ere modu batera izendatzen ditu. Niretako dena berria zen. Baina talde oso jatorra zen, bazekiten berria nintzela eta beti laguntzeko prest zeuden. Bitxia izan zen figurante lana ere egin nuelako pare bat alditan.

## 4 Zer moduzko esperientzia izan da?

Niretako izugarria izan da. Gainera, etxean nengoen, egunero etxean lo egiten nuen. Jende asko ezagutu dut eta horri esker gauzak ateratzen ari zaizkit. Nire bizitzako esperientzia izan da.

## 5 Altsasuarrak izateagatik auzi-ri buruzko kontuak galdetu dizkizute?

Erabakiak hartzen zituztenek oso argi zuten zer nahi zuten kontatu. Grabaketarekin hasi aurretiko lana da. Inguruko langileek jakin mina adierazi zuten.

## 6 Ikasten ari zinela, horrelako proiektu batean parte hartzea pentsatzen zenuen?

Ez. COVID-19aren ondorioz praktikak hilabete batez bakarrik egin behar izan nituen. Gasteizko ekoiztetxe txiki batean egon nintzen. Bukatu nuenean pentsatzen nuen: "Eta orain nora noa?". Kasualitatez amak hori esan zidan. Mundu honetan mugitu behar zara. Ez nuen inoiz pentsatuko zinemaren munduan sartzea nahiko itxia delako, eta ez nekien nola sartu. Orduan, Altsasun izan zelako esan nien, bestela, ezer ez.

## 7 Nolokoa izan da grabazioaren prozesua?

Departamentu bakoitzak buru bat du. Aurretik biltzen dira lokalizazioak begiratzen dituzte. Aurretik egiten den lan hori da garrantzitsuena. Lehenengo astean, argazkilaritza zuzendaria eta argiztapen burua lokalizazioetara joaten dira, eta beharren zerrenda bat osatzen dute; materialen zerrenda bat. Grabazioa-

ren egunean argazkilaritza zuzendariak kamera hartzen du eta bertan ikusten duenaren arabera esaten digu zenbat argi nahi duen. Lana taldetan oso ongi banatuta dago.

## 8 Oso iluna dela esaten dute. Argi teknikari bezala, zer diozu?

Galdera hau espero nuen. Lagunen artean ere bromak izan ditut. Eskatzen digutena egiten dugu. Argazkilaritza zuzendariak esaten du nola nahi duen. Berak argi horrekin tristezia adierazi nahi zuen, herriarendako istorio oso gogorra da, eta iluntasun horrekin transmititu nahi zuen.

## 9 Orokorrean, kritika onak izan ditu. Aurreikusten zenituzten?

Sentimendu kontrajarriak nituen. Nire lehenengo lana zen, eta esperientzia bakarra izan da. Beste alde batetik, beldurra nuen ez nekielako herriak nola jasoko zuten. Pentsatu dezakete ni altsasuarrak izan da eta bertan lan egiten nola ez diegan horrela ez dela izan aipatu. Baina nik ez neukan ez bozik ez hitzik. Fikzioa da, saiatu dira errealismo ukituak ematen, baina grabatzen ari ginenean nondik ateratzen zituzten ez nekien gauza asko zeuden. Audientziarekin gustura gelditu dira eta herrian ere nahiko harrera ona izan du.

## 10 Zer ikasi duzu?

Bost asteko grabaketa batean bi urtetan ikusi dudana baino gehiago ikasi dut. Alderdi teorikoa garrantzitsua da, eta ikasi eta jakin behar duzu; baina gero grabaketara iristen zarenean ikusten duzu kamera bat nola jartzen duten, zer behar dauden, nola egiten diren gauzak, zergatik, zer bilatzen duten argiarekin eta abar.

## 11 Ateak ireki dizkizu?

Honen ondoren ez nekien zer egin ahal izango nuen; agian urte batez geldirik egon nintekeen. Ekoizpen zuzendariak esan zidan oso ongi lan egin nuela eta gogo handia jarri nuela, eta lasai egoteko lana egingo nuelako. Egia da Altsasuk pila bat lagundu didala. Ondoren, Iruñean Imanol Uriberen film baten grabaketan aritu nintzen, Donostiako enpresa batekin kontaktatu nuen ere eta film labur bat egin dut haiekin. Agian Netflixeko telesail baterako lan egingo dut. Mugitzean datza, ea zer ateratzen den.



Zure argitalpenarekin laguntzerik nahi ?

ZURE LIBURU, LIBURUXKA, TXOSTEN, ALDIZKARI, BULETINEN... MAKETAZIO ETA INPRIMAKETAREKIN LAGUNDUKO DIZUGU

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe



DISEINU GRAFIKOA  
WEB DISEINUA  
KOMUNIKAZIOA

679 821 436  
info@gkomunikazioa.eus  
Feru plaza, 23-1. Altsasu